

(azala & kontrazala)

Badago hor kanpoan mundu bat kontrolatu ezin duguna, baina hori horrela ulertzea beldurgarri izan beharrean nola hartu era lasaigarri eta gozagarri batean?

Ze mekanismo ditugu ezagutu beharrekoak?

Zeintzuk dira gure pentsamoldeak jartzen dizkigun tranpak?

Zer gertatzen da dagoenaren inguruko diskurtsoekin?

Oinarri-oinarritik zerbait aldatzerik ba al dagokigu?

Zer dago hizkuntzatik kanpo?

Zer da menpean egotea?

Ama-hizkuntzak mundua egituratzen digula aintzat hartuta, zer dauka euskarak hain aberatsa dena inguruan dituen hizkuntzekiko? Zerk merezi du euskaran? Nolakoa da? Bada, euskara ez da hizkera bat bakarrik, pentsamolde bat baizik, inguruan nagusi diren jatorri indoeuroparreko pentsamoldeen arras ezberdina. Euskaraz ez dago 'identidad-erik', ez dago 'tiempo-rik'. Holako gauzak mamitzen dira solas honetan.

Mundua arreglatzen solasaldi luzeak ematea laket zaigun minorientzat gustoko liburuxka duzu hau, pentsamoldeari argi berriak eskaintzen baitizkio, zenbait euskaldun fededuni akaso herejeak suerta dakizkion argiak. Aproposa da halaber bizi-jarioa isur ez dadin partxeak jartzen ibiltzeaz aspertuta dabilen edonorentzat. Badira bizitza eta pentsamoldea eder aldera aldarazteko gai diren solasaldiak, eta horietakoa duzu hau, irakurle, ezohiko zaigun gimnasia intelektual, askatzailea. Bada bi ordu hauek elkarriketan jardun eta gero jakintsuago, irekiago, sortzaileago sentitu den irakurlerik. Hala bedi zuretzat ere. Hemen duzu Jatorrizko Bertsioan. Bejondeizula, lagun!

Anti- Identidadea: identidadearen kontrako bizipen bat (EUSKERA)

(bi orduz) **Jon Baltzarekin solasean**

**2000. urteko uztailaren 10ean
Algortako Ajuria taberna barruko
terrazan**

*tolosarrak "Un escorpión en su
madriguera" liburua karrikaratu duela eta*

GONBIDAPENA

Indian nago. Hiru aste dagoeneko. Jainketxe eta tenplo ugari bisitatu ditut. Alde guztietatik, hamaika jainko-jainkosa. Bazter guztietatik, halaber, esaldi bat: "asko dira, baina bat eta bakarra da".

Esaldia bueltaka ari zait gogoan. Bertako jendeari galdetzen diot (taxi-gidariari, hotelean eskailerak-eta garbitzen ari den langileari, arropa-dendako saltzaileari): "Zergatik? Nolatan ezin konta-ahala jainko-jainkosa, eta aldi berean bakar bat baino ez?" Denek erantzun berbera ematen didate: "Hauekin begiratzuz -esaten didate begiak seinalatzen dutela- asko ikusten dituzu, zenbakiak huts egiten dizute denak zenbatzen ahaleginduz gero. Honekin behatuz, ordea -esaten didate eskua bihotzean jarritz-, bat besterik ez dela senti dezakezu."

Bi mundu horiek, irakurle, dituzu hementxe, orain: oraintxe, irakurtzen ari zarela.

Bi mundu horietaz ari gara datozen orrialdeetan.

Egutegi ofizialari kasu eginez gero, lau urte baino gehiago joan dira, 2.000.eko uztail hartatik honainokoak. Ordea, Ajuria tabernako barrualdeko patio-moduko hartan, espazio eta denboratik at bezala aritu ginen hizketan.

"Taberna", ekialdeko poesia mistikoan, barreneko esperientzia-gunearen sinboloa da, gorago aipatutako bihotzaren irudia nolabait. Tabernaren sakonenean hitzoik esan genituen: tabernaren bihotzean -bihotzaren bihotzean-, bihotzetik ateratako solasa, jolasa.

Euskarari buruzkoak dira, eta 'euskara' aitzakitza hartuz, hizkuntzaren eta hizkuntzen bitartez

ageri zaizkigun bi mundu horien gainekoak: begien bitarteko mundua, bihotzaren bidezko mundua.

Lehendabizikoaren gainean, ***hitz egin*** egin dezakegu. Bigarrenean, ordea -bihotzaren bidezkoa, alegia-, ***bizi*** egiten naiz, ***bizirik naiz***.

Lehendabizikoa, ikusmenaren mende eratzen eta antolatzen da: ideak, kontzeptuak, iritziak, usteak, ilusioak, desirak ... milaka imajina, milaka irudikazio -milaka jainko-jainkosa, izan ere-: gurtu egiten ditugu, eta gurtze horrek kateatuta gauzka, atxilo bihurturik. Atxilo izate hori, esklabu bihurtuta, jopututa biziraute hori, horixe da 'idolatria' hitzaren zentzu propioa.

Bihotzak, ordea, ez daki deus ere ideei buruz: ez du usterik, ez du iritzirik, ez ilusiorik, ez desirarik: barreneko bihotz-begiak begiramen garbia du, sentimenaren behatze aratza, eta arazki beraz sentitzen du orain eta hemen gertatzen ari dena: beti berri, beti fresku, beti bizi.

Datozen hitzoik ***esandako*** hitzak dira: ez idatzitakoak. Ez itzazu, horrenbestez, irakurri besterik gabe: esan itzazu, eta utziozu zure bihotzari darion ahots xuxurlariari, hemen eta orain, bere bidea zabal dezan zuretzat.

En el principio existía el Atman en la forma de Purusha. Mirando a su alrededor no veía otra cosa que a sí mismo. Dijo primero: "Este soy yo". Por eso se llamó de nombre "yo". Por eso, cuando un hombre es saludado responde en un principio "Ese soy yo", y después pronuncia el nombre que le es propio. (...) Entonces tuvo miedo; por eso el que está solo tiene miedo. Y pensó: "Puesto que nada hay distinto de mí, ¿de qué tengo miedo?" Por eso su miedo se alejó. ¿Por qué iba a tener miedo? En verdad el miedo se tiene de otro.

Pero este mundo entonces no estaba desarrollado. Lo desarrolló entonces con nombres y formas: "Tal nombre, tal forma", dijo. Todavía hoy en este mundo todo se desarrolla con nombres y formas, diciendo: "Tal nombre, tal forma". Entonces él (el Atman) penetró en este mundo hasta las uñas, y por eso no se le puede ver como a una espada introducida en su vaina o a un escorpión en su madriguera. Pues él sólo se manifiesta parcialmente. Así, cuando respira su nombre es prana, cuando habla 'voz', cuando ve 'ojo', cuando oye 'oído', cuando piensa 'pensamiento'. Esos son los nombres de sus actos (karma). El que lo identifica a uno u otro de esos actos individualmente, ése no conoce; pues sólo se manifiesta parcialmente por cualquiera de esos actos. Hay que conocer el Atman, pues en él todas las cosas son una. Hay que seguir en todas las cosas la huella del Atman, pues por él se conocen todas las cosas. Y de la misma manera que siguiendo las huellas se vuelve a encontrar lo que se había perdido, el que esto sabe encuentra gloria y alabanza.

Brihadaranyaka Upanishad.

Jon Baltzarekin solasean "Un escorpión en su madriguera" (ed. Hiria) liburua karrikaratu duela eta

Peru C.Saban -Euskarari buruzko liburu bat idatzi duzu, baina lehenik hizkuntza aztertu duzu mundua eraikitzeko edo mundua ulertzeko tresna bezala, hau da, barrutik. Normalean kanpotik egin ohi dira hizkuntzari buruzko azterketak eta zu saiatu zara oinarritik egiten, ezta?

Jon Baltza -Bai, askotan esaten da, edo batzuk esan izan dute hizkuntzek mundua eratu egiten dutela, edo behintzat mundua ikusteko modua eratu egiten dutela, eta ni saiatu naiz ikusten ea hori egia den edo ez. Orduan, hizkuntza aztertzen aritu naiz, batez ere García Calvo-ren testuak aprobetxatuz. Orduan argi eta garbi ikusten da hizkuntzaren bitartez ikus daitekeela bi mundu daudela, eta ez bat bakarrik, hau da, hizkuntza berez ez dela besterik gabe mundu bat, baizik eta edozein hizkuntzak bi mundu bereizten dituela: mundu bati buruz hitzegin egiten dugu beti, gauzei buruz hitzegiten dugu, ideiak erabiltzen ditugu eta halako gauzak, eta hori da mundu bat, baina bada beste mundu bat hizkuntzak ere markatzen duena eta beste mundu hori da hau, gauden mundu hau, ezta? mundu honetan mintzatu egiten gara, eta edozein hizkuntzak markatzen du mundu hau deiktiko izena duten hitzen bidez: 'ni', 'hemen', 'orain', 'hau' ...holako gauzak.

PC -Normalean gauza guztiak hizkuntzetik ulertzen dira, eta pentsatu izaten da horrekin edonora ailegatzen dela, baina zure liburuan azaltzen denez, hizkuntza tresna torpe samarra da inora iristeko, ezta?

-Bai, nik esango nuke hizkuntzak bereizten dituen bi mundu hauen arabera badela alde batetik

komunikazioaren mundu hori, eta hor hizkuntza beharrezkoa zaigu: (komunikazioa eta inkomunikazioa esango genuke) gauzei buruz hitz egiten dugu eta, piska bat, hor badago adostasun bat, zein gauzei buruz hitz egiten dugun eta horrela. Orain, nik uste dut denok ikus dezakegula edo senti dezakegula badela beste zerbait gudan eta beste hori ezin dela argi eta garbi azaldu hizkuntzaren bitartez, hau da, ezin dela garbi azaldu zergatik sentitzen dudan nik neure buruari buruz ni ez naizela bat bakarrik baizik eta asko, eta nola nintzen hura eta naizen hau ez garela bat, nahiz eta nik ideia bat egin dezakedan neure buruari buruz, eta pentsatu orain dela hamar urte nintzena eta orain bertan hizketan ari naizen hau bat garela.

PC -Beste modu batean galdetzeagatik izango zen 'zer dago hizkuntzatik kanpo'? galdera hori.

-Zer den hizkuntzatik kanpo zaila da esaten, hain zuzen ere esan dezakegun guztia hizkuntza bihurtzen dugulako, ezta? hitz-egiten-dugu, hitz bihurtzen dugu, ezta? Orduan hitz bihurtzen dugun momentu hortatik, nahiz eta ez dakit izan daitekeen zerbait hizkuntzatik kanpo, hori ez dakigu, ez dakigu zer den hori, hori ez da kontzeptuen bitartez harrapa dezakegun zerbait. Baina badakiguna da hizkuntzak markatu egiten duela: markatu egiten du hitz egiten ari garen momentu hau. Nik esaten dudanean "egin dut", 'dut' hitz horren 't' horrek markatzen du besterik gabe hizketa-puntu hori, baina ez du besterik markatu: hizketan ari garen momentu hau, eta momentu hau atrapa ezina da: pentsatzen edo hizketan jartzen banaiz momentu honi buruz bi maila desberdintzen dira berriz ere, hau da, nik esaten dudana eta beste hori, pasatu dena, ez dena hemen: hemen beti da, besterik gabe, dena da hizketan ari garen momentu hau, eta momentu hau ez da denboran dagoen momenturik.

PC -Horrekin lotuta, ematen du zure liburuak euskarari buruzko gogoeta bat duela helburu, baina mitoari buruz

hizketan hasten zara: lehenengo kapitulua 'Mitodeixis' izenburukoa da. Zergatik hasten zara mito hinduista bat aztertzen, eta Tao-a aztertzen, gero euskera aztertzeko?

-Bai, liburuaren hasieran, lehendabiziko kapituluan, saiatu naiz ikusten nola ez harrapatu edo ez nola kontzeptu bihurtu beste mundu hori, baizik eta nola izan ere hitz egin dezakegun mundu horri buruz, nola somatzen dugun hori edo sentitzen dugun hori, zein diren gure tresnak mundu horretara ailegatzeko nolabait, edo mundu hori beste modu batean ulertzeko. Orduan, ba bueno, konturatu naiz bi modu daudela beste mundu horri buruz hitz egiteko, eta bi modu horiek dire: bata, ezezkoaren bidez, ezta? hau da, euskal mitoetan asko agertzen da nola Mari ezezkoaren bidez bizi den, hau da, esan dezakegu mundu hori ez dela mugatua, ikust-ezina dela, ez dela kontzeptuen bitartez egituratuta, ez dela ideia baten bitartez harrapa dezakegun mundu bat, 'ezezkotapena' edo 'ezeztapena' edo holako zerbait. Beste bat da aintzinako modu bat edo aintzinako tresna bat eta oraindik Euskal Herrian bizirik dirauena, eta hori da mitoen mundua; mitoek egiten dutena da baita ere, nere ustez, eta horretan saiatzen naiz, mundu hori piska bat azaldu, kontraesanki hain zuzen ere azalduz; azaldu edo erakutsi edo behintzat mundu horren distiraren bat ematen diguna, nolabait. Orduan, alde batetik ezezkoaren bitartez eta beste alde batetik mitoaren bitartez soma dezakegu zer den mundu hori, eta orduan konturatu naiz mitoek hain zuzen ere hori seinalatzen dutela: gure ohizko munduaz gain edo mundutik at badela beste mundu hori. Mitoak zer egiten du? Mitoak egiten duena da kontraesangarriki mundu hori azaldu, azaldu ezin dena nolabait kontraesangarriki azaldu egiten du, ez? Eta horregatik azaldu ditut batez ere bi arlo mitologiko: bata aintzinako Indiako mitoen arloa (*Upanishad* mito hori), eta beste alde batetik Txinako Taoismoaren mundu hori: zer den Tao hori eta nola Tao horrek erakusten digun badela beste zerbait, beste mundu hori, eta beste mundu horretan ez dagoela 'identidad' deitzen den hori, edo 'ser' deitzen den hori, edo 'existir' deitzen den hori, baizik eta

beste zerbait, hizkuntzatik at. Mitodeixis izena hain zuzen ere horregatik jarri diot, mitoetan gainera elementu batzuk ematen du direla sinboloak. Nere ustez sinboloek funtzionatzen dute mitoetan hala nola lehen aipatutako deiktiko horiek hizkuntzan. Hain zuzen ere hizkuntzan baldin badauzkagu 'ni', 'hau', 'orain' eta 'hemen', hau da, esanahi berezirik ez dutenak, ba mitoetan ere gauza bera beharko dugu esan: baditugu sinbolo batzuk eta sinbolo horiek ez dute esan nahi finko bat, baizik eta bakoitzak bere erara zentzu bat aurkitu behar die.

Pedro Blanco -Eta sinboloen funtzioa da hori, deiktikoen funtzioa egitearena?

-Bai, nere ustez hori da. Orduan agertzen zaigunean biribila edo zirkulua sinbolo bezela, zer esan nahi du sinbolo horrek? ba ezin dugu esan zer esan nahi duen, ezta? nik esaten badut: "horrek esan nahi du denbora ziklikoa dela", baina ze koño esan nahi du denbora ziklikoa dela! hori ez da kontzeptualki harrapa dezakegun zerbait, baizik eta guk sentitu edo senti dezakegun zerbait. Orduan, gauza hau egiten dute deiktikoek hizkuntzan: zer 'ni' edo 'hau'? ezin da kontzeptualki harrapatu, baizik eta besterik gabe da denboratik at dagoen zerbait. Sinboloek gauza bera egiten dute.

PB -Mundu hori, "mundo EN que hablamos" esaten duzuna, ezin badugu berataz hitzegin, zergatik sartzen duzue hizkuntzaren parte bat bezala?

-Ez da hizkuntzaren parte bat mundu hori, baizik eta hizkuntzatik at dagoen zerbait, baina hizkuntzan dauden elementu batzuk markatu egiten dutena.

PB -"Mundo EN que hablamos / Mundo DE que hablamos" bereizketa hori hizkuntzaren gainetik dago. Zuk hitz egiten duzunean horretaz, hori hizkuntzarekin erlazionaturik dago ere, azken finean hizkuntza erabiltzen baitugu gauzei buruz

hitz egiteko, baina beste gauza bat da; orduan ez da hizkuntza.

-Hori da hizkuntzaren kanpotasuna. Hori da beste mundu hori: ez dago hizkuntzan baina hizkuntzak markatu egiten du. Nik 'ni' esaten dudanean 'ni' hori ez da ezer, zuk ere esan dezakezu momentu honetan, eta momentu honetan 'zuk' esaten duzu.

PB -Liburuan esaten duzu zuk mundua ulertzen duzula 'ordenación' bezala, kosmos bezala. "Mundo en que vivimos" hau izango litzateke "la parte más caos"?

-Ez, ez, ze kaos ere ez dago kosmosik gabe. Normalean kaos hitza erabiltzen denean esan nahi duzu ez dela zuk-nahi-duzun-ordena, hau da, zuri esaten badizute: "zure gela kaos hutsa da", horrek ez du esan nahi ez dagoenik orden bat, baizik eta hori ikusten duenak ez duela ordenik ikusten hor. Zuk agian ikusten duzu: betikoa, ezta? zure erara dauzkazu ordenatuta gauzak, ez da kaos bat zentzu horretan, ezta?

PB -Ahaleginak egiten ari naiz hori zer den ulertzeko. Eta hori galdetu dut zeren errealitatea edo mundua azken finean lengoia edo hizkuntza bada, eta horregaz batera egiten badugu errealitatea, eta bestea kanpoan badago. Orduan hau da gure errealitatea, horrela eraiki eta ordenatu dugu, gizakia, eta hor dago errealitatearen parte bat ikusten ez duguna. Horregatik galdetu dut kaosarena. Orduan hau da ordena eta bestea da kaosa, edo kontrolatzen ez duguna, el azar, el destino, los juegos...

-Bai, baina horiek denak hitzak dira, eta semikuestionatutako hitzak dira, eta azken finean hitz horiek erabiltzen dira kontrolatu nahi izateko beste hori, ezta? baina beste hori kontrolaezina da, ezin da kontrolatu, ezin da identifikatu zeren ez da gauzarik. Gauza guztiak dira gauzen arteko erlazioak edo gure hitzak. Ume ginenean, hau da, hizkuntzik gabe ginenean,

seguraski besterik gabe bizi egiten ginen, ezta? mundu hontan bizi egiten ginen. Piskanaka sartzen zara sare horretan, sare kontzeptual horretan, edo hitzen sare horretan. Orduan sare horrek ematen dizuna da: alde batetik hitz egiten dugun modu honetan bizitzeko modua - ez dago beste modurik, ezta?, gizakien artean mugitzeko-; beste alde batetik gertatzen dena da ahaztu egiten zaizula beste mundu hori dagoela, identifikatu egiten zara nolabait esateko.

PC -Hain zuzen ere, 'Indoeuropeo(s)' izeneko bigarren kapituluaz azaltzen denez, hizkuntza indoeuroparretatik, mendebaldean nagusi den eta hizkuntza horretatik datorren kultura horren baitan, 'identidad' bezalako kontzeptuetan oinarrituta argia eman nahi da edonon, zientziaren bidez kasu. Bizi garen mundu horren 'zentzu' horretara heldu nahi du mundu horri dagokion 'esanahia' bilatuz, eta nolabait kontradikzio horren ukapena bilatzen du. Mitoaren gaur egungo deslegitimazioa hortik dator ezta?

-Bai, hain zuzen ere hori da. Izan ere, jendeari galdetzen badiozu orohar, indibiduoari galdetzen badiezu orohar ea mitoa zer den, lehendabiziko gauza esango dizute mitoa gezurrezko zerbait dela, eta zientziak gainditu egin duela mundua ikusteko modu hau, ezta? Baina mitoa ez da besterik gabe mundua ikusteko modu bat, baizik eta bi mundu horien arteko desberdintasuna markatzeko modu bat. Horregatik mantendu dira mitoak. Zientziak zer egin nahi? beste mundu hori ere kontrolatu egin nahi du, identifikatu zentzu horretan, murritz. Nola? kontzeptuen arabera edo menpe jarritz. Adibidez fisikan: mundu subatomiko edo atomo azpiko mundu hori: zer egin nahi da: gauza bera: aurkitu nahi da hor, txikitasun horretan ere, orden bat. Eskapatu egiten zaie, edo ihes egiten die mundu horrek, hain zuzen ere, baina behatzaileak edo arakatzaileak bere buruan sare bat baldin badu, aurkituko duena sare hori bera izango da. Nik sare bat aplikatzen badiot edozerri sare hori aurkituko dut hor, ezta? Zulo

txikiko sare bat botatzen badut itsasora halako eta holako arrainak harrapatuko ditut. Orain, zulo handiagoak badira arrain txikienak ez dira hor harrapatuta geratuko baizik eta kanpoan. Orduan sare hori gero eta zehatzago egin nahi da, eta beste mundu hori harrapatu, baina berdin da, funtzionatzen baitute kontzeptu oso identitarioekin, eta aurkituko dutena izango da hori, ezta? nahiz eta paradoja asko aurkitu izan dituzten. Paradoja asko.

PC -Liburuan bi mundu ezberdin agertzen dira: bata izango litzateke kultura milenario batzuen edo gizakiaren mendetan zehar transmititu den mundu bat: euskal mitoena, edo Taoarena; eta beste aldetik aurrera begira edo etorkizunari begira zentzua bilatzen duen beste mundu bat.

-Bai, baina hor bada ere tranpa ttiki bat, eta hau da: aurrera begira egiten diren diskurtso guzti horiek, futuristak eta, azken batez iraganean daude ainguratuta. Zergatik? iraganaren historia egiten dutelako, idea bat dute, iraganaren historia bat, eta denboraren idea bat baita ere. Denbora lerro bat bezala eta hor kokatuta azaltzen dute, beren kultura adibidez, "orain dela 2000 urte guk egiten genuena da hau", "orain dela 1000 urte egiten genuen hau"... "Orduan egin behar duguna da hau eta hori" ez? baina zuk kultura milenarioak edo tradizionalak deitutako horiek denboratik kanpo bizi dira. Hau da, Euskal Herrian bertan, herri ttikietan noski, eta herri euskaldunak (hau da, euskaraz hitz egiten den herrietan), eta mito horiek oraindik kontaktzen diren herrietan, ezta? nik entzun bezala. Hor galdetzen badiezu inori ez zaio inporta orain dela 200 urte zer gertatu zen, edo nondik gatozen edo nora goazen, ezta? Mito horiek gaur egungo gauzak dira, ez antzinako gauza batzuk gaur egundaino etorri zaizkigunak. Zer gertatzen da beste alde batetik? denok dauzkagula bi zati nagusi: bata da denboran mugitzen den zati hori, baina gudan ere bada beste zerbait, denboratik kanpo den beste zerbait, eta ipuin horiek ulertu egiten duten beste zerbait: nik hartzen

badut Indiako mito antzinako hori ulertu egiten dut gaur, nahiz eta hemen nagoen eta hori Indiakoa den eta beste hizkuntza batean idatzita egon, baina ulertzen dut zergatik? nigan badelako beste zerbait hori uler dezakeena, hori da kontua. Eta kontua da: denbora ideal horretan bizi den kultura, eta hori da Globalizazioaren Kultura, Kapitalaren Kultura, Estatuaren Kultura, hau da Kultura 'K' maiuskula batez, eta bestea da denbora lineal horretatik kanpo bizi den kultura. Baina ez denbora ziklikoa delako baizik eta denboratik kanpo bizi delako, baina benetan denboratik kanpo: ez zaio benetan inporta zer gertatuko den. Agian horregatik mantendu izan da euskera, ezta? zenbait lekutan behintzat ongi. Hain zuzen ere, hemen leku askotan gertatu zena: gurasoek seme-alabei erakutsi zietela erderaz hitzegiten beldurra ziotelako geroari, ezta? nondik sortu da geroari zitzaion beldur hori? kanpotik. Orain, beste zenbait herritan eta lekutan, ez dagoenez denboraren kontzeptu hori, ez zaio beldurrik geroari; orduan erakusten da, ba bueno, dakiguna, ez? ez da inolako distintziorik egiten kanpoko zerbait erakusteko edo dena delakoa, ez?

PC -Agian heldu da momentua galdetzeko ea laburki azaltzeko zure liburuen helburu edo ideia nagusi dena: 'Identidad' edo 'ser/Tiempo' kontzeptuak, indoeuroparrak jatorriz direnak eta euskaraz existitzen ez direnak. Liburuan frogaketa linguistiko zabal batez laguntzen duzun tesi hori agian horrela galdetuta ematen du gaur egungo beste probokazio bat dela, baina hala ere gustatuko litzaidake laburki azaltzea.

-Nik esango nuke oinarrian dagoena, edo niri agian gehien interesatzen zaidan 'Identidad' kontzeptu hori da, eta gaztelaniaz esaten dut euskaraz ez dagoelako 'identidad-ik', nahiz eta 'identitate' esan hori ez baita euskera. Orduan liburuan bada oinarrizko ildo bat 2. eta 3. kapituluetan: indoeuroparren artean -eta hori ikusten da bai bere mitoetan, bai bere hizkuntzetan- sortu dela sinismen berezi bat, edo fede berezi bat, eta fede horri edo

sinismen horri deitzen diot, gaztelaniaz ere: "Creencia en la identidad de uno consigo mismo". Esaldi hori bera ere euskeraz ezin dugu esan, edo esaldi hori ez dago esaterik euskeraz: euskeraz beste gauza batzuk esan daitezke baina hori ez. "Creencia en la identidad de uno consigo mismo", ezta? zer da "Creencia en la identidad de uno consigo mismo"? Bueno, ba, batez ere, zera: indibiduo bakoitzak sinismen bat du eta sinismen hori da bera mantendu egiten dela berdin-berdina bera izanik denboraren zehar. Denbora hori zer da? denbora hori imaginatutako zerbait da. Zer da imaginatzen den hori? imaginatzen den hori besterik gabe da: adibidez, orain dela hamar urte nintzen hura eta orain naizen hau bera, bat eta bera garela, ezta? hor pasatu dela denbora besterik gabe, baina ni ni naizela besterik gabe: nintzen hura eta naizen hau bat garela besterik gabe. Zer aldatu den hor? aldatu dena da nere ingurua, agian nere zirkunstantzia batzuk, ez dakit, bigarren mailako beste zera batzuk, baina ni 'ni' naiz, eta hor mantentzen naiz. Absurdu samar ematen du, baina hori da, ez? Eta, bueno, zer behar da batek sinismen edo fede hori izateko? Behar duena da bere inguruan dagoen guztia identifikatu baita ere, hau da, bere inguruan dagoen guztia, dauden pertsonak, horiek direla, eta ez beste batzuk. Nik uste beharko dut zu 'zu' zarela, eta orain hamar urte zinena eta orain zarena bat zaretela, ez? Denbora hori non dago? ez dago inon, imaginatutako zerbait da besterik gabe, hau da, hitzegindako denbora bat, denbora hori ez dago inon, oroimena da besterik gabe, gogorapen bat, ez? eta gogorapen horretan -klaro, euskaraz esatean oso berezi geratzen da:- nik neure burua kokatzen dut, baina indoeuroparrez ez da 'nik nere burua kokatzen dut' baizik eta "yo me coloco a mí mismo" ezta? 'mí mismo' hori ere ez dago euskeraz, ez dago "yo soy idéntico a mí mismo" ezta? hain zuzen ere euskeraz 'ni' eta 'neure burua' bi gara. Orduan, non ikusten da sinismen edo fede hori indoeuroparren artean? ikusten da alde batetik indoeuroparrek berregituratu duten antzinako aditz paradigmak, zeinean agertzen baiten oso gauza berezi bat,

eta da: orain hizketan ari naizen hau eta orain dela demagun hamar urte hizketan ari zen hura, bi horiek markatzeko erabiltzen den aditz marka berbera da: hain zuzen ere 'm' batez markatzen da. 'm' hori da hain zuzen gero izenordea eman duena: 'mi'. Berbera da. Orduan zer gertatzen da indoeuroparrez? gertatzen da badagoela lotura ideal bat bi puntu horien artean, ez? lotura ideal hori da 'ser' aditzaren bitartez adierazten dena. 'Ser' aditz horrek indoeuroparrez esan nahi du horixe bera: lotura bat dagoela bi puntu horien artean: hizketan ari zen hura eta hizketan ari den hau bat dela, hain zuzen ere 'ni' deitzen den hori: 'mi', indoeuroparraz. Hori alde batetik. Beste alde batetik hain zuzen ere 'Tiempo' kontzeptu hori baita ere. Zer da 'Tiempo' indoeuroparraz? gauza bera, mantentze hori: hori da 'Tiempo', ideal hori, lotura ideal hori, hori da 'Tiempo'. Zer da 'ser'? 'ser' gauza bera da: idealki mantentzea ni 'ni' bezala, ez da hor ezer pasatu: gauzak pasatu dira nire inguruan eta ni 'ni' naiz. Zer da 'existir'? gauza bera, 'ser' horren beste izen bat da 'existir'. Hain zuzen ere 'existir' hori gaurko erabilera horretan asmatu zen Erdi Aroan eskolastikoen artean, apaizen artean, Jainkoari buruz hitzegiteko, esateko: "Dios existe". Zer esan nahi du 'existe'? esan nahi du berdin mantentzen naiz, bera mantentzen naiz, hau da, Jainkoa berdin eta bera mantentzen da, eta pasatzen den denbora horrek ez dio aldaketarik ekartzen. Beste alde batetik, gauza bera ikusten da mitoetan: zein da 'creencia en la identidad de uno mismo', eta 'ser', eta 'existir', eta 'tiempo' horren, zein da horren adierazle indoeuroparren mitoetan? Ba, indoeuroparren mito eta sinbolo guztien erdigunean dagoen figura: 'pater' deitzen dena, gero gaztelaniaz 'padre' eman duena etabar, zehazkigo: 'dieus pater'. 'Dieus pater' da: 'Dios-Padre', aita-jainkoa edo halako zerbait. 'Pater' horrek baditu ezaugarri berezi batzuk. Zein dira ezaugarri berezi horiek? alde batetik agertzen da mitoetan; beste aldetik agertzen da egitura sozialean, indoeuroparren egitura sozialean. Familia indoeuropararren erdigunean dago figura berbera: 'pater' hori. 'Pater' horrek zer egiten du? 'pater' horri dagozkio atributo guztiak, eta

berari dagozkio jabetza guztiak. Bera jabetzen da denaz, bera da denaren jabe. Oso interesantea da euskaraz esaten dugula "jabe izan" eta esan nahi duela konturatzea, ez? "jabetzen naiz" da "konturatzen naiz". Kasu honetan, indoeuoparren artean, jabe izatea da besterik gabe gauzak berari dagozkiola. Argi ikusten da hori denetariko jabetzatan, ez? ba adibidez ardiak, txerriak eta behiak bere jabetza dira, eta batez ere, eta interesgarriagoa dena: emakumeak. Emakumeak 'pater-aren' jabetza horren barruan daude, ezta? Bera da emakumearen jabe. Orduan emakume batek utzi egiten du bere oinarritzko familia hori, eta ezkontzea da beste familia horretara joatea, ez? Lotura legal bat, esan dezakegu, ez? 'Pater' horrek adierazten du batez ere lotura legal bat, ez odolaren araberrako lotura bat, baizik eta legearen araberrako lotura bat, ez? Bera da besteen 'identidad' horren emalea, ezta? berak ematen die besteei 'identidad' hori, ezta? horregatik, indoeuoparren artean, gizonezkoa hil egiten zenean, 'pater' hori hil egiten zenean, emakumea geratzen zen 'ser' hori gabe, jada ez zen, ez zen ezer, besterik gabe geratzen zen 'ser' hori gabe. Eta horri deitzen zaio 'viuda', hain zuzen ere 'viuda' hitza dator antzinako indoeuoparretik 'uidheua' ezta? eta 'uidheua' horrek esan nahi du hutsa, ez duena ezer balio, baliorik gabekoa, 'ser' ez duena, ezta? ez dena ezer. Zergatik ez da ezer eta hutsik dago eta baliorik ez du? hain zuzen ere 'pater' horrek ematen ziolako balioa, ematen ziolako 'identidad' hori, eta orain geratzen da hori gabe. Ordea, ez dago indoeuoparreraz, antzina, 'viudo' hitzik, 'viudo-rik' ez dago hemen, izan ere. Ezin liteke 'viudo-rik' izan, zeren eta 'pater' horrek berak badu berez 'identidad' hori, ezta? bera da bera dena, zena eta izango dena eta laletxe, ez? Eta horrek badu bere islada mitoetan. Mitoetan gauza bera gertatzen da: badago hor 'pater' bat, ez?

PB -(Interpretazio maltzurra bada, esan) Hori entzunda, euskeraz ez dauden hitz edo aditz horiek -identidad, ser...- eta guztiz lotuta daudenak 'pater-aren' mito horiekin; era berean mitoak erabiltzen ditugu beste mundu hori ulertu

nahian. (eta hau da interpretazioa) Kanpotik ikusita badirudi orduan dela -eta inolako juicio de valor gabe diot- nahiz eta pentsatu 'sociedad del progreso, y de la razón' garela, nahiko primitiboak gara orduan: ser/Tiempo eta identidad horiek, gizarte honen zutarri izanda, azken finean konportamendu oso primitiboa da, ezta? Mitoa sartu dugu geure errealitatean, eta beharbada ez dugu ulertzen, zeren hori mito bat da eta beste gauza bat da ulertzeko, ez? Baina errepikatzen da *a rajatabla* esango nuke.

-Bai, bai, hori oso interesgarria da eta nik uste dut nahiko primitiboa dela pentsatzeko modu hori, baina gertatzen dena nere ustez, indoeuoparren artean mitoa herren geratu dela, herren, hau da, hanka bakarrek mitoa dela. Zergatik hanka bakarrek? zeren eta bi motatako mitoak ageri dira munduan: bata da polaridadearen araberrako mitoa, eta bestea da polaridade hori hautsi egiten duten mitoak, ezta? polaridadea zer da? Gaua/eguna, iluna/argia, ama/aita, emetasuna/artasuna, hau da: mugagabea/mugatua. Zer gertatzen da? indoeuoparren artean polaridadearen eskema hori ikusia izan dela alde batetik bakarrik, hau da, aita, argia... alde horretatik, ezta? definizioaren aldetik, mugaren aldetik. Orduan zertan saiatu dira indoeuoparrak beti? saiatu dira beste alde hori, mugagabea den alde hori, iluntasunaren alde hori, ilargiaren alde hori, emetasunaren alde hori, saiatu dira guzti hori beren mende jartzen, hau da, gizonezkotasunaren mende jartzen, mugaren mende jartzen, argiaren mende jartzen. Orduan zer gertatu da? mugagabea dena ere mugatu nahi izan duela, ezta? ez dela errespeturik izan mugagabe den horrekiko, hain zuzen ere. Orduan, hori gertatu da indoeuoparren artean, horregatik dago hor 'pater' hori erdian, ezta? Ordea, eta alderantziz, zer gertatu da polaridadea mantendu egin duten mito horiekin? ba bueno bi alde horiek ageri direla: bata eta bestea, mugagabea dena eta mugatua dena, ezta? eta mitoetan ikusten da biak direla beharrezko mundu hau sortzeko. Eta baita ageri da polaridade horren azpitik badagoela beste zerbait polaridadeari berari ihes

egiten diona, ezta? Taoistek deitzen diote horri Tao, ez? polaridadea da: 'yin', emetasuna; 'yang', gizonezkotasuna. Eta horren kanpo edo azpitik dago Tao, ezta? Tao berez da horretatik kanpo dagoen zerbait, ez? eta hain zuzen ere polaridadearen funtsean dagoen zerbait, ez? Baina ez alde bata edo bestea, baizik eta kanpo. Bi horiek. Indoeuroparren artean hori ez da mantendu, orduan gaur egun ditugun gizarte horiek hain zuzen ere horregatik dira primitiboak, hanka bakarreko mitoak direlako. Eta hizkuntzean ere hori ikusten da, ez? Hanka bakarreko mitoak hankabakarreko gizartea sortarazten du. Eta gure hanka bakarreko gizartea da Estatuaren Gizartea, Kapitalaren Gizartea eta 'Identidad' horren Gizartea.

PC -Primitiboak izatea primitibotasuna ukatuz ere zentzu batean, ez? modernidadearen izenean agian.

PB -Eta horretan datza primitibismoa gainera.

-Bai, hori da eroek edo txoroek egiten dutena, ezta? Ero batek ez du sekula esango "joder! ero nago!", sekula ere ez, egingo duena izango da "besteek dute erotasun hori bere baitan ezta? nik ez dut horrelakorik!". Mitoaren kasuan gauza bera, ez? Horregatik hainbeste diskurtso primitiboetara buruz, ez? eta horregatik hainbesteko lehia edo ahalegina primitibo izendatutako horiek konbertitzen hain zuzen ere fede horretara, eta aurkitzen duen guztia horretara konbertitzen ari da, ez?

PC -Orduan euskerara ailegatzen gara eta zer gertatzen da? gaur egun ematen du denbora guztian erantzun nahi dela zertarako balio duen euskarak gizarte modernoan, edo nola aurrera ateratzen duen euskera gizarte modernoan, honetan, ez? zeren nahiko peioratiboki hitz egiten duzu kultura indoeuroparari buruz.

-Peioratiboki ez indoeuroparrei buruz baizik eta sortarazi den mekanismo horri buruz, ez? 'identidad' horri buruz. Nik ez dut esan nahi indoeuropar guztiek hori dutenik,

baina bueno, hor sortua izan da eta hain zuzen ere beraiek sortu dute horrelako gizarte bat, hori argi dago niretzat. Eta horregatik dute mundua beren mende, ez? alde guztietatik, eta horregatik kapitalaren eta estatuaren eredu edo modelo hau zabatzten ari da, ez? toki guztietara. Horregatik da, besterik gabe. Zergatik? gerraren bidez egiten dutelako. Gerra da besterik gabe. Gerrak behar duena da oposatzaile bat, eta zer gertatu da hemen? ba hemen izugarritzko oposatzaile ona aurkitu dutela. Eta zein da? ba bueno, 'identidad' horren diskurtsoa asumitu egiten dutenak, eta gauza bera egin nahi dutenak hemen. Hemen gauza bera egin nahi dute. Nondik sortu da diskurtso hori? Diskurtso hori, igual jende askori hau ez zaio gustatuko, baina diskurtso hori sortu da batez ere erdaldunak ziren jendeak egindako diskurtsoak, ezta? bai Sabino Arana, eta bai aipatuko ez ditudan gaur egungo beste batzuk, ez? baina Sabino Aranak argi eta garbi hartu zituen kontzeptu horiek kanpotik, ezta? nik dakidanez, bere anaia Luisek Kataluñatik ekarrita, ez? zergatik? bueno ba, garaia zelako European izan ere, ezta? Romantizismoaren zera hori European emandako zerbait da, eta ez da mekanismo hori bera baino, 'identidad' horren mekanismo hori bera, ezta? Hemen gauza bera gertatzen ari da, ez? Gehien erreklamatzeko dutenak euskera gure hizkuntza dela eta hori, gehien-gehien erreklamatzeko dutenak dira, nere ustez, sekula euskeraz bizi izan ez direnak, ez? hau da, Juaristik horretan, ba bueno, badu, arrazoi du, ezta? Juaristi zuzen dago malenkonia horretaz hitzegiten duenean, ezta? Bilbon, izan ere bera bilbotarra da, eta nik uste "El bucle melancólico" horretan bere buruaz hizketan ari dela, ez? zergatik sartu zen bera mundu guzti horretan? ba bueno, malenkonia hori transmititu ziotelako bere etxean, familian, euskeraz hitzegiten ez zen etxean. Orduan "paraíso perdido" edo galdutako paradisu hori, ezta? beste mito indoeuropar bat: euskeraz ez dago horrelako kontakizunik, ez dago galdutako paradisu, ez dago horrelakorik, ez dago. Hori da oso oso indoeuroparra, ez? eta berari gertatutakoa azaltzen du hor, eta gero egotzi egiten die berak beste nazionalistei, baina

nazionalismo hori da bilbotarra, ez? piska bat tabernetan ageri den kartel horretan argi ikusten da, ez?: "Dios sólo hizo un equipo perfecto. A los demás los llenó de extranjeros". Hori da bilbotarrismo hori, ez? Eta hori da Sabino Aranaren rolo guzti horretan nere ustez argi geratzen dena, ez? Izan ere, irakurri nuen zer bait Krutwigek esandakoa -portzierto: Krutwig euskaldunberria baita ere-, eta berak bere aldetik Resurrección María de Azkueri entzundakoa: Azkuek esaten omen zuen Sabino Aranak ez zuela ongi hitzegiten euskeraz, ezta? eta hain zuzen ere herritarrekin ez zela gai euskeraz ongi hitzegiteko, ez? Bueno, hor eztabaida ugari dago, eta egia esan eztabaida hori ez zait gehiegi interesatzen, ez? Baina bueno. Zer gertatu da hemen? eskola espainolaren bidez ikasitako kontzeptuak aplikatu egiten direla; piska bat Indian gertatu zen gauza bera, ez? Indian 2000 erresuma omen zeuden, ezta? britanikoek kolonizatu zutenean. Zer egin zuten britanikoek lehendabiziko gauza? Beraiek sortu zuten India gaur ezagutzen dugun bezala, batasun hori beraiek sortarazi zuten. Zer egin behar da horretarako: lehendabizikoz hizkuntza bakar bat behar da, eta inglesa zen hizkuntz hori, ezta? India osoan inglesa erabili dezakegu. Gero Hindi hasi ziren erabiltzen, baina Indian badira 600 bat hizkuntza. Hori egiten dute. Zer gertatu zen? bertako indio dirudunak Ingalaterrara joaten zirela ikastera, estudiatzera, eta han estudiatuz zer ikasi zuten? koño! ba kontzeptu guzti horiek, ezta? Estatuaren kontzeptua, 'Demokrazia' horren kontzeptua, beste zenbait kontzeptu, eta azken baten 'identidad' kontzeptu hori, ezta? Orduan bueltatzen dira Indiara eta esaten dute: "Guk ere gauza bera nahi dugu". Eta orduan britanikoen kontra, eta hor sortzen da gaur egun ezagutzen dugun indien 'identidad' hori, hortxe, ez lehenago. Lehenago ez zen horrelakorik, ezta? Beste gauza bat da jendea nola bizi den han, Indian, horretatik at. Eta bueno, jendea beti bizi da politikaz gain edo politikatik kanpo, ez? Beste gauza bat da intelektualek eta politikoez zer erakutsi nahi duten komunikabideetan eta euren diskurtsoetan, baina jendea berez bizi egiten da, ez?

PB -Hori entzuda, eta Indiako adibidearekin, batzuk pentsatuko dute segidan: "orduan zer: sartu zaizkigunean zapaltzen utzi behar zaie?" Indiako kasuan bertakoak altxatu ez balira beharbada inglesen menpe jarraituko lukete gaur ere. Zer da menpean egotea?

-Hori da oso gauza berezia eta hemen halaxe bizi izan dena nere ustez, edo behintzat nik txikitatik horrela bizi izan dut ezta? hori ikusi eta sentitu egin dut, ezta? eta badirudi hemen Erdi Aroan bertan, nahiz eta orain Nafarroako erresumari buruz hitzegiten den eta Nafarroako erregea eta guzti hori, eta jende askori asko gustatzen zaio rolo guzti hori, ba bueno, badirudi Nafarroan ere jendea piskat horretatik kanpo edo at bizi zela, ezta? alde batetik hor dago, eta administrazioari beti hemen piskat mesfidantzaz begiratu izan zaio, ez? hain zuzen ere, hau da, erromatarrek bere administrazioarekin ezin izan bazuten -ezin izan zuten!- hemen zegoenarekin bukatu, are gutxiago askoz ere ahulagoak diren administrazioak, ezta? are gutxiago. Errege bat, lehendakari bat, presidente bat, gobernadore bat beti izango da menderatzaileen instrumentu bat. Hori argi dago. Euskal Herria deitzen den honetan badago mendekotasunaren kontrako tradizio handi bat, hau da, inoren mende ez egotearen tradizio bat. Hori nere ustez argi dago. Orduan hemen zer gertatzen da? gaztelaniaz ikasitako kontzeptu horiek, gaztelaniaz pentsatutako diskurtso horiek esaten dutena da hemen ere gauza bera egin behar dugula, hau da 'identidad' hori, ezta? zer egiten da? besterik gabe kopiatu: presidente bat, bandera/ikurrina bat, gobernua/jaurilaritza, polizia/ertzaintza, enfin, holako gauzak: kopiatu besterik gabe. Hizkuntzarekin gauza bera: munduan berez Hizkuntza Akademia bi daude: frantsesa eta espainola, eta hemen, Euskaltzaindia deitzen dioguna, ezta? zergatik? estatu bat izateko, estatu-nazional bat izateko egia da hizkuntz bakar bat behar dela. Eta hori ez dago hemen: hemen dago euskera, baina euskera hori dira hitzegiteko modu asko, ez? bat da, baina batasun hori ez dago berdin

izatean; batasuna dago beste zer baitetan: nahiz eta forma desberdinak erabili berdin dela ikusten da. Hau da, hizkuntza bera, nahiz eta asko izan, ezta? ia ia -antzina idatzia geratu zen bezela- baserritik baserrira aldatzen den hizkuntza. Eta hori lehendabiziko euskal idazleek argi eta garbi jartzen zuten, ez? "bueno, euskera bai bat, baina ez bat, asko dira..." Hori dena aldatu egin nahi da orain, ez? eta nire ustez Estatuaren ideia horren mende dagoen ideologia bat da, ez? jendeak behar ez duen ideologia bat, nere ustez.

PC -Nahiz eta kontzeptu indoeuroparra izan, menderapen hori hain latza-edo sentitzen den momentu hauetan, hain galdua, zeren liburuaren hitzaurrean esaten duzunez, zure ustez euskalduntzea azkarregi eta goitik behera egin izan baita azken urteotan, eta beraz ikusten dugu euskaldunen kopurua igo egin dela baina zure ikerketen zentruan kokatzen den hitanoaren formak adibidez desagertze bidean daude.

-Ez dut uste geroz eta jende gutxiagok hitzegiten duenik hikaz, uste dut estadistikak ematen dizkigun kopuru handi horiek hartuz orduan bai, horren arabera proportzionalki jende gutxi izango da, zeren eta esaten baldin bada "ehun mila euskaldun gehiago dago orain", euskaldunberri esaten den hori. Orduan noski, horiek ziuraski gehienek ez dute ikasi hitanoa. Ez dute ezta ere ikasi esaten "ispiluan neure burua ikusten dut": 'ispiluan ikusten naiz' esaten dute, ez? edo ez dute ikasi euskeraz ez dugula 'existir' hitzik, eta behin eta berriz sartzen dute, ez? 'existitzen naiz, existitzen da' eta hori, ez? Zergatik? gaztelaniaz pentsatzen ari direlako, ez? Horrekin bezala beste gauza askorekin, ez? esaldiaren egitura, eta zuk badakizkizun gauza asko, ez? Orduan, nere ustez, zergatik gertatu da hori? ez delako benetako transmisio bat izan, hau da, ez da kontaktoaren bidez egindako transmisio bat eta maitasunaren bidez egindako hizkuntz transmisio bat, baizik eta -nahiz eta batzuek ezetz esan- inposizioaren bidezko transmisioa, halabeharrezko transmisioa, zeren

eta -eta hori hemen asko entzuten da, ez? Portugaleten eta alde guzti hortan- gurasoek bidaltzen dituzte seme-alabak euskal ikastetxeetara edo gauzak euskeraz ikasten diren ikastetxeetara beldurragatik. Zergatik? Pentsatzen dutelako gero ez dutela lanik aurkituko euskaraz ez badaki, ez? eta alde batetik egia da. Orduan, hor dago indibiduen sumisia, mendekotasun hori. Zergatik? ba bueno, bakoitzak jakingo du, baina bueno, mekanismo indoeuropar hori oso interesgarria da bestalde, mekanismo hori bera indoeuroparren kontra erabiltzen da nolabait. Baina klaro, mekanismoa bera indoeuroparra da, orduan, ez dakit, pistola bat hartzea pistola erabiltzen dutenen kontra, azken batean pistola erabiltzen ari zara, ez zara deus berririk egiten ari. Zu ere pistolari bat edo pistolzale bat izango zara, nahiz eta esan "ez, ez: hau bitarteko bat da". Ez, ez da bitarteko bat eta gero helburu batzuk: helburua bera bitartekotasun horretan inskribatua edo markatua dago, ez? nere ustez.

PC -Bai, euskera galtzearen penatan edo berreskuratze nahian bizi garen euskal mundu honetan zure abiapuntua akatagatzen da. Liburuan diozu: "una lengua se puede perder, ciertamente: pero también se puede echar a perder."

-Bai halaxe da, horretaz ez dut gauza berririk esan, jende askok ikusten du. Orain, baten bati agian mina eman diezaioke horrek.

PB -Agian euskalduntze lan handienekin egiten ari direna euskerarekin amaitzea da. Nik, euskaldunberria izanik, nere seme-alabei euskera erakusten badiet, azken finean nahiz eta euskera haien lehen hizkuntza izan, oso euskera indoeuroparra izango da seguraski. Orduan beharbada puntu honetatik aurrera iraungo du euskerak, baina jada galduta, ez baita izango bazegoen beste euskera hori, ezta?

PC -Agian euskeraz bakarrik dakiten gutxi horiek hiltzen direnean, edo puntu horretan, ez?

-Bai, nere ustez orain alde horretatik gauza interesgarri bat gertatzen ari da, ez? Eta da gutxienez bi komunidadek sortu direla, ez? Bata ez dakit nik, amaren herrira joaten baldin banaiz asteburuan, Intzara joaten baldin banaiz. Han hizketan aritzen naiz bertako euskalkian, demagun; gero Santurtzin eskolak eman behar baditut eman beharko ditut batuaz, edo nik hitzegin dezakedan batua euskalki batetik datorren batua da, esan nahi dut, egitura bera izango da, ezta? agian hitz guztiak ahoskatuko ditut edo ebakiko ditut erabat, eta ez dut soinurik jango, edo dena delakoa, baina izango da hori. Orain, beraiek hitzegiten dutena ez da hori izango, izango da azpian gaztelania duen batua. Orduan nere batua eta beraien batua ez da batua bera izango, ez? Batua asko daude. Han transmititzen den euskeran, amaren herrian, Tolosan ere, edo bueno, euskalgune horietan beste bat izango da hemen transmitituko den euskera horrekiko, desberdinak dira. Beste galdera bat: zergatik jendeari edo zenbait jenderi sartu zaio orain lehia hori bapatean bere hizkuntza aldatzeko eta esateko "nere hizkuntza euskera da". Ez, ez, "zure hizkuntza ez da hori". Ez da. Zure hizkuntza izango da lehendabizi ikasitako hizkuntza, hori izango da beti, eta horrela da. Eta hori onartzen ez baduzu, ez duzu sekula beste hizkuntzik ongi ikasiko. Eta horregatik jende askori iruditzen zaio ahalegin edo saio ttiki bat eginez jada hitzegiten duela hizkuntza hori. Zergatik iruditzen zaio? inguruan dituen pertsona guztiek berdin hitzegiten dutelako, ezta? Hori gertatzen zitzaigun guri Alemanian. Alemanian aritu ginen alemana ikasten, eta bueno, izugarritzko kurtsoak alemanek emanda eta hori, eta zer gertatu zen? ba bueno, bazeudela Japongo batzuk, bazeudela Italiako beste batzuk, Frantziako beste batzuk, Turkiako beste batzuk, eta ez dakit zer, bakoitza bere hizkuntzekin. Orduan pastitxe moduko bat hitzegiten genuen. Klaro, alemana zen, baina klaro, alemanekin hitz

egin nahi zenuenean askoz ere zailtasun handiagoa zegoen, ezta? Besteekin hitzegiten genuen halako pastitxea, eta halako batean esaten duzu: "koño!, alemanak balio dit niri japoniar batekin hitzegiteko" bai, noski, baina hitzegiten duzun hori alemana da edo zer da, ez? Hemen ere hori gertatzen ari da, ez? Hori da kontua.

PC -Lehen malenkoniaz hitzegin dugu, baina malenkonia euskeraren alde zergatik? mundu galdu baten malenkonia bat izango litzake?

-Bai, eta pentsatzea "nik galdu egin dut euskera". Ez dut sekula hitzegin, baina esan dezaket: "ez, galdu egin nuen, edo galdu egin genuen..." Nola? Zuk ez duzu ezer galdu, Zuk daukazu hizkuntza bat hasieratik dakizuna, eta horrek egituratu egin du gainera zure burmuina, adibidez, lehendabiziko bi urtetan ikasitako hizkuntzak egituratu egiten duelako zure burmuina, eta hori da zure lehendabiziko hizkuntza, hori da zure berezko hizkuntza. Gero ikas ditzakezun gainerako hizkuntza guztiak horren gainean ikasiko dituzu, hau da, lehendabiziko hizkuntza horrek izendatutako batez ere egitura horien arabera, ez?

PB -Tremendo!

PC -Orduan 'euskaldun ama hizkuntza euskera ez dutenak' malenkonia horren baitan galduak dira. Gertatzen dena da, hitzegiten ari garen guzti honen arabera ez daukala ezer txarrik, ala bai, zeren hain peioratiboki hitzegin duzu indoeuropar kultura autoritarioari buruz, azkenean ematen du mundu galdu horrek, jode, ba benetan pena merezi zuela, eta nik ez badut autoritarismoan sinisten, hortik sortzen da nire gaztelania horren ukapen hori ez?

-Bai. Kontua da bi modutan egin daitekeela hori, ez? bata da maitasunaren bitartez, benetako maitasunaren bitartez: esan dezakegu benetakoan ez dagoela autoritarismorik, ez? ez dago kontrol nahi hori, ez? kontrola eta autoritarismoa sartzen direnean maitasun harreman

batean maitasuna amaitu da, ez dago maitasunik, hor beste zerbaite dago, ezta? Gauza bera gertatzen da hizkuntzekin, hau da, nondik etortzen zaio bati ideia hori "gure hizkuntza euskara da...", nondik etortzen zaio? nork sartu dio ideia hori? nork ez dio ikusten uzten bere hizkuntza gaztelania dela? Ideia horrek ez dio ikusten uzten, ideia hori nondik etorri zaio? zergatik etortzen zaio orain eta orain dela 50 urteko jendeari ez zitzaion gertatzen? Badagoelako gizarte egoera zehatz bat, eta egoera horrek bultzatu egiten ditu ideia hauek. Portzientzako Espainiako estatuari ederki etortzen zaizkio ideia hauek, ezta? Estatu batek nahiago du kontra egin diezaiokeen beste estatu bat izatea. Hori da bere funtzionatzeko modua.

PB -Indoeuroparrok, beraz, kasu honetan gaztelania lehendabizi ikasi dugunok, ikasi dugun estrukturaren menpean mugitzen gara, eta aldi berean, hau da, berez, - eta ez dakit tranpa bat izango den-, baina bueno, berez ez dugu nahi horrelako estruktura batean mugitu. Nola salbatuko gara orduan indoeuropar garenok?

-Zure galderak berak erantzuna eman du, hau da, zuk nahiz eta oinarrian hizkuntza indoeuroparra izan, hori sentitzeko gai baldin bazara, horrek esan nahi du edozein hizkuntzatan ikus edo senti daitezkeela gauza horiek, eta ez bakarrik euskeraz. Gertatzen dena da euskeraz argiago ikusten dela arakatu ondoren, baina hizkuntza guztiek dituzte deiktiko horiek, ezta? gaztelaniaz 'yo', aquí, 'esto', 'ahora'; orduan nik nere liburua ere gaztelaniaz idatzi dut, hain zuzen ere. Zergatik idatzi dut gaztelaniaz, edo erdaraz? ba opzioetako bat izanda, 'identidad' horri buruz hitz egin nahi badut euskeraz ezin dut horretaz hitzegin, beste zerbaite esango dut, baina ez hori, ez? nori dago zuzendua liburua? fede hori duten horiei zuzendua dago. Zer esan nahi du horrek? horrek esan nahi du nahiz eta erdaraz hitzegin hori ikus daitekeela, eta ez dela beharrezkoa ezein hizkuntz ikastea beste motatako pentsamendu bat izateko, eta edozein hizkuntzak ematen

dizkizula tresna horiek, ez? indoeuroparraz tresna horiek ilunduago daude alde batetik, edo izkutuago; euskeraz argiago ikusten dira, ez? baina agintariek, presidentek, erregeek eta horiek, Jainkoari esker, ezin dute hizkuntza mende jarri. Jar ditzakete hizkuntzaren maila batzuk, orduan akademiak zer egiten du? "limpia, fija y da esplendor", ez? hori da, baina "limpia, fija y da esplendor" nun? maila zehatz batzuetan, eta berak erabakitzen du ongi eta gaizki: "esto es español, esto no es español"; Euskaltzaindiak gauza bera egiten du: horrela ez, horrela bai; hau horrela esan behar da, hau ez da horrela esan behar. Eta jendeak hitzegiten du hitzegiten duena, besterik gabe. Mendekotasuna da kontua, ezta? mendekotasuna, autoridadea, eta denok dugu tentazio bat, eta da autoridade bat aurkitzea; zergatik? inseguridadeagatik, ziurtasun ezak maila guztietan bultzatzen gaitu ziurtasun bat aurkitzera, eta ez baduzu leku batean aurkitzen beste batean aurkituko duzu, baina bizitza ziurtasun eza hori gabe arrisku bat da. Norentzat da arriskua? bada gure buruari buruz ditugun ideia horientzat oso arriskutsua da, ze ideia horiek esaten dute "ez, ez, tú eres el que eres, y tal, no? tienes tu identidad, cómo vas a perder eso, tu personalidad".

PC -Hain azterketa oinarrizkoetara joz gero, gero helburuetara iristen zara eta kanpotik ikusita esaten duzu: bueno, hau edo abstrakzio izugarria da eta paso egiten dut, edo bestela hankaz gora botatzen dit nire fedea, ezta? erabiltzen dudana fede asko. Salaketa inplizitu oso fuertea bat dago zure analisisian, ezta? nazionalismoari, gaur egun euskaldun askok fedetzat daukaten sentimen askorengan.

-Bai, euskaldun fededun, ezta?

PB -Hain lan eta liburu teknikoa eta linguistikoa izanik, gero hain irakurketa politikoa egotea horren atzetik oso deigarria da.

-Bai, eta nere ustez da, klaro gainera zuk planteatutako gauza bat da nik esandakoaz. Nik uste dut hasieratik planteatu zenidatela hau, ez? zuek ikusi duzue hor dagoen planteamendu anti-politikoa. Orduan liburuari dario planteamendu hori, ezta? agian ez da argi eta garbi jartzen, baina liburuko analisisiei darie planteamendu hori. Orduan zuek soma dezakezue hori, eta hori maila batean dago; agian beste batzuek iraintzat hartuko dute hor esaten dena, ezta? "ostras, nere kontra! nere kontra!", 'ni' hori, ez? Zein zara zu zure kontra inor izateko, ez? Hori da kontua. Orduan bai, zuek esaten duzuen egia da: badago planteamendu anti-politiko bat.

PC -Liburu arriskutsua da fededun askorentzat, ez? Arriskutsua behintzat fedearentzat, eta fedearentzat arriskutsua dena gizaki fededunentzat ere arriskutsua da. Agian nahiko liburu herejea da zentzu horretan.

-Bai, alde horretatik bai, eta bueno, egia esan, horrela atera zitzaidan, ez? esan nahi dut hasieran analisiak-eta egiten hasi nintzenean ba bueno badituzu hor eskema batzuk, baina gero aztertuz eta aztertuz ateratzen zaizu, hau hemendik dijoa, eta beste hau hemendik.

PB -Horrela bada, horrela da.

-Ba bai, eta horrela atera zait eta bueno, ez dakit argi geratzen den esaten dena liburuan edo, ez dakit, baten batek esan dezake "hau ez da horrela", ez? Baina bueno, hor daude analisi horiek, ezta? eta bai baditu ondorio batzuk ezta? bakoitzak atera behar dituen ondorioak, bakoitzak atera beharrekoak. Azken batean nere ustez borroka bi gauzen artean dago: alde batetik dago 'existencia', 'existir', 'ser', 'tiempo', 'poder', 'estado', 'identidad', 'creencia en la identidad de uno consigo mismo'... eta beste alde batetik, eta erabat desberdina dena: bizitza, bizitzea. Bizitzea, ideiarik gabe. Hain zuzen ere bizi, ideiarik gabe bakarrik bizi daiteke, ez? Ideiak ezin

du bizitza harrapatu, bizitza aldaketa erabatekoa da, ez? Eta aldaketa erabateko hori da euskal mitoetan ageri dena, ez? euskal kontakizunetan, erdigunean, batzuk Mari deitzen duten hori agertzen baldin bada, beste batzuk deitzen dute beste modu askotara, edo Balerdiko kobazulo batean bizi den emakume hori, edo dena delakoa, edo Anbotokoan bizi den siñora edo dama edo dena delakoa. Hori ageri bada, horregatik da: hori ez da, berez ez du 'identidad' hori, ez? zergatik? bueno, batzutan ageri da emakume bezela, beste batzutan ahar bezela, beste batzutan zuhaitz bezela, beste batzutan hodei bezela, beste batzutan su bezela, beste batzutan harri bezela... Orduan, non ageri da? dena bezela. Dena. Dena izan daiteke. Orain hitzegiten ari naizen momentu honetan gu horren azalpena gara. Zer esan nahi du horrek? benetan horren oinarrian dagoen horri eusten badiogu konturatzen garela gu ere aldaketa hori garela, ezta? ez dagoela erabateko bereiztasunik gure inguruan dauden gauzak eta gure artean. Badagoelako oinarritzko batasun bat; baina hori sentitu egiten da, sentitu egin daiteke, ez kontzeptualizatu, ez? horregatik daude mitoak: mitoek azaltzen dute sentipen hori. Eta horregatik transmititu izan dira hemen, ez? jendeak bizi izan duelako hori, ez? Eta hizkuntzak ere hori erakusten du, ez? hau da, euskerak ere hori erakusten du nere ustez. Hor badaude bi gauza erabat desberdinak direnak.

PC -Ulertuko ez dutenentzat, gustatuko litzaidake laburki azaltzea zergatik idatzi duzun erderaz ze hain zuzen ere euskaldun fededunen mundu horretan zaila da hori ulertzen. Batek baino gehiagok esan didate: "euskarari buruz erderaz idatzi du? joe, ondo gabilta!".

-Bai, niri ere baten batek esan izan dit, ezta? Zergatik erderaz? pentsatzen dut azaldu nahi nituelako erderaz erabiltzen edo manejatzen diren kontzeptu batzuk euskeraz manejatzen ez direnak, eta ez nuena nahi zen batzuk egiten dutena egin. Hori ez nuen egin nahi, ezta? beste batzuk egiten dutena, eta zer egiten dute?

gazteleraz pentsatuz euskeraz egindako jantzi bat edo trajea jartzen diote, ezta? Traje horrek azpian zer du? ba, gaztelaniazko kontzeptu horiek ditu, ezta? hau da, ez dute benetan euskaraz idazten, baizik eta gaztelaniaz idazten dute euskal hitzekin, ezta? Orduan, 'existencia' horri buruz hitzegin nahi badute, jartzen dute 'existentzia' eta kitto. 'Identidad' horri buruz hitzegin nahi badute, jartzen dute 'identitate' eta kitto. 'Ser' horri buruz hitzegin nahi badute, jartzen dute 'izate' edo 'izan'. Orduan nik azaldu dudana da horrelakorik euskeraz ez dagoela. Ez da. Ez da horrelakorik. Ez da. Zuk ezin duzu Descartes euskeraz jarri benetan, ezin duzu "cogito ergo sum" euskeraz esan, ez du zentzurik. Ez du. Hori da kontua, ezta?

PC -Zuk azaldu nahi diozu hori guztia pentsamendu indoeuroparrari hain zuzen, ezta?

-Bai, indoeuroparrez pentsatzen dutenei esaten diet: begira, horrela pentsatzen duzue eta honetatik datozkizue kontzeptu horiek, ezta? Ordea guk, euskeraz, ez ditugu, ez dugu horrelako kontzepturik edo idearik erabiltzen. Ez da euskeraz, ez da euskal kontakizunetan. Orduan, globalizazioarekin loturik, unibertsaltzat hartzen diren kontzeptu horiek ez dira unibertsalak. Ez dira. Eta gainera eta are garrantzitsuagoa dena: ez ditugu ezertarako behar: nik ez dut 'existir' hori ezertarako behar, eta ez dut 'tiempo' hori ezertarako behar. Nori komeni zaio 'tiempo', 'existir', eta 'identidad' hori? estatuari, eta estatuak, hau da, guretzat espainolak eta frantsesak, tranpa bat jarri dizuete beraiek emandako eskolen bitartez, eta zuek tranpa horretan sartu egin zarete, besterik gabe. Eskolatuak ez daudenek ez dute horrelako kontzepturik, intelektualek erabiltzen dituzte kontzeptu horiek. Zergatik? hartu egin dituztelako eskola espainoletan edo frantsesetan. Horregatik. Asko zehaztu gabe, ez dago begiratu besterik egin behar 'existir' hori noiz eta nola eta nork sartu zuen euskal literaturan, ezta? Bakoitzak ikus dezala. Edo nork asmatu zituen 'aberri' eta halako gauzak, ez? jaurrlaritzak, lehendakari, ikurrina, enfin, gauza horiek,

ertzaina... nork asmatu dituen, zertarako, enfin. Dena den, orain idazten ari naiz gauza bat euskeraz azalduz euskeratik barnetik baina euskeraz jarrita, ezta? hain zuzen ere itzulezina izango den liburu bat idazten ari naiz, itzuli ezin izango den liburu bat, euskeraz. Eta kitto. Zergatik? euskeraz badagoelako jolas solas bat, ezta? eta solas jolas hori, hitz berbera dena euskeraz, ba bueno euskeraz egin daiteke. Euskeraz gauza berriak egin daitezkeela, eta bizitzeko modu horiek ere, bueno ba, zahar-berriak direnak, hor daude, ezta? antiautoritarioak... bai, badaude. Izan ere jendea bizi da gaur ere. Beste gauza bat da intelektualek eta politikoez zer erakutsi nahi duten, ezta? baina bueno, hori jendeari ez zaio inporta. Eta denok dugu 'jende' alde hori, ez? denok gara jende, ez? jende alde hori denongan dago. Batez ere ateratzen zaio bati, ez dakit ba, haziendara jo behar duenean, ezta? - portzierto, hazienda euskeraz dela 'ganado', ez?.

PC -Zu horrela mintzatzen adituta are malenkonია handiagoa sortzen da euskaldun mundu horri buruz edo, ez?

-Bai, hori ulergarria da ezta? beharbada denok dugu malenkonია piska bat hori. Adibidez nik ez dezaket imaginatu gure amona zena malenkonია horrekin, ez? besterik gabe, horretan bizi zen, orduan ezin da izan horrelako malenkoniarik, ez? ezta ere inongo idealizaziorik, ez? mundu hori idealizatzen hasten baldin bagara, hain zuzen ere idealizazio bat da, besterik gabe. Jendea ez da hobeagoa horregatik. Baina hor daude mekanismo batzuk interesgarriak direnak eta bueno, jendearentzat baliagarriak, eta da 'anti-identidade' hori, ezta? identidadearen kontrako bizipen bat, ez? Azken batean gutako bakoitzari dagokion zerbait. Esan nahi dut: heriotzaren kontua hori da, ez? zertarako galdu bizitza benetan baliagarriak ez zaizkidan gauzekin, ez? hau da, zergatik hil alde aurretik? eta hilda nago bizi baldin banaiz estatuaren mende eta identidadearen mende. Heriotza, indoeuroparren artean hori da, ez? eta horregatik hil-

harritan jartzen duena da izena. Izena eta denbora, ez?: hemen jaio eta hemen hil. Tal, tal, tal. Arestik esaten zuen, ez? "Nire izana nire izena da, eta ez naiz ezer nire izena ez baldin bada", klaro, berak pentsatzen indoeuroparrez, hori argi dago, baina konturatu gabe egia handi bat esan zuen. Egia da, esan nahi duena da: "mi ser es mi nombre, y sin mi nombre no soy nada", ez? hau da, "sin mi identidad no soy nada". Eta hori da hilarrietan jartzen dutena, eta orduan ja hila zaude, orduan bai zaudela erabat identifikatuta, ez? "a bai, honek hau egin zuen, eta hau, eta hau, eta hau", identifikazioa beti da iragana, beti, pasatu den hori. Euskeraz pasatu den hori da 'zena', eta 'zena' eta 'dena' gauza erabat desberdinak dira: 'zen' hori, ba bueno, hain zuzen "amona zena" zer da? hila dagoena; "alkate zena" zer da? alkate lehen zen, baina orain ez da; hau da, hemen, edo hizketan ari garen momentu edo mundu honetatik kanpo dago, ezta? identifikazio guztiak hori dira, ezta? momentu honetatik kanpo dagoen zerbait. Orduan, bueno, bakoitzak jakingo du horrela bizi nahi duen, hau da, 'existitu' nahi duen bere izena, bere nortasun agiri nazionala, bai espainola, edo bai Pais Vascokoa, edo dena delakoa. 'Nortasun agiri nazionala': nolako barbarismoa, ezta? nortasun agiri nazionala. Nork behar du Nortasun Agiri Nazionala? estatuak, gobernanteek, kontrolatzeko. Kontrolatzeko, eta hor erabiltzen da baita ere mendebaldean oso hedatua dagoen 'culpa' edo erru sentimendu hori, ez? 'culpa' zer da? ba hori. Bueno, hemen gauza asko daude lotzen ari naizena bata bestearekin, eta beste batzuk ahaztu!

PC -Ez, ez, azkenean mekanismoak dira agian ezagutu beharrekoak nolabait bortxatuak sentiarazten gaituen mundu honetan aurrera ateratzeko eta zoriotsu bizitzeko, eta mekanismo horiek ezagututa berdin litzake euskeraz egitea edo erderaz egitea, ezta?

-Bai, hori da, hori da, zuk esan duzun hori da, ez? hori da nik ikusten dudana behintzat, ez? Orduan ez da "euskera da hizkuntz indoeuroparren kontra..." ez, baizik eta bueno,

hizkuntz guztietan dagoen mekanismo bat, nola muturreraino eraman izan den indoeuroparrez, nola euskeraz beste gauza bat ageri den, baina funtsean hizkuntz guztiek bereizten dituzte bi mundu horiek, ezta? Orduan, gustatzen al zaigu estatua? gustatzen al zaigu hazienda? gustatzen al zaigu polizia? gustatzen al zaigu guzti hori, ezta? gustatzen al zaigu beste fikzio hori: hautatzea, hautaketak, eta bozketak, eta errepresentanteak eta. Nik ez dut errepresentanterik behar. Errepresentante bat izateko, lehendabizi jitea izan behar dut, ezta? 'identidad de uno conmigo mismo': "a quién representa? -a mí mismo". Ni ez baldin banaiz 'mí mismo', cómo me va a representar nadie?! si ni yo mismo me represento! Edo hola, ez? Poliziak zer eskatzen dizu lehendabizikoz? NANA, ez? Nortasun Agiri Nazionala. Hori beste asunto bat da, ez? nola itzuli duten 'identidad' nortasun: 'identidad' ez da 'nortasun' hain zuzen ere, nortasuna beste zerbait da; nor da? halakoa eta halakoa, ez? baina hori ez da 'identidad', inolaz ere, nortasuna da momentuoro esan egin behar den zerbait, ez da mantendu egiten den zerbait, ez?

PC -Nitasuna edo.

-Bai, hori oso kontzeptu filosofikoa da, ez? nitasuna, ez? hain zuzen ere 'existir' eta 'existencia', gaztelaniaz adibidez, hasieran oso kontzeptu filosofikoak ziren, baina gero indibiduoek erabili egiten dute, ez? barra-barra. Orduan "existirán algunas nubes", esan zuen bezala eguraldi gizon batek.

PB -'Concepto del ser' ez dago euskeraz? Aditz bezala badago ba: 'Izan'.

-Ez, 'izan' ez da 'ser'. Hori da kontua. Ikusi behar da lehendabizi zer esan nahi duen 'ser' horrek indoeuroparraz, ezta? 'Ser' horrek esan nahi du "mantenerse idéntico a sí mismo en un tiempo ideal". Hori ageri da ez bakarrik aditz horretan, baizik eta aditz

egituraren morfematan edo markatan, ezta? hizketan ari naizen momentu hau markatzeko eta hizketan ari nintzen momentu hura markatzeko marka bera du indoeuroparrez: 'm'. Orain gatzelaniaz ez da agian hain garbi ikusten, baina bueno hor dago, 'm' hori. Euskeraz ez, euskeraz gertatzen dena da momentu hau markatzeko eta izandako momentu hura markatzeko bi marka desberdin erabiltzen dituela, adibidez: 'egin dut' eta 'egin nuen', ezta? 'nuen' eta 'dut' horien artean ez dago loturarik. Zergatik? 'nuen' horretan dagoen marka da hasierako 'n' hori, ezta? eta 'n' hori da izenordearen 'n' berbera: 'ni'. 'Dut' horretan ageri den marka ez da izenordeari dagokion markarik, ez dago 'n-rik', baizik eta 't' bat. 't' hori zer da? hitz egiten ari naizen momentua markatzeko erabiltzen den marka bat. Baina bien artean ez dago loturarik, ez dago lotura morfemikorik, eta ez dago mantentzerik hor, ezta? desberdintasun hori ageri da, ezta? bereizketa ageri da. Hori alde batetik. Beste alde batetik, indoeuroparrez zer bereizten zen aditzan? bereizten zen: orainaldi bat eta iraganaldi bat. Euskeraz ez, euskeraz oinarritzko bereizketa da: hitzegiten ari naizen momentua -adibidez 'dut'- eta hitzegin nezakeen momentua, eta hori da 'nu', ez? 'banu'. 'Egin dut'/'egingo banu'; eta 'banu' horretatik gero datoz 'nuen', 'nuke' eta guzti horiek, ezta? Bereizten dena da balizko zerbait eta hizketan ari naizen momentua. Hemen dena hau da, eta beste guztia da balizkoa, baita iragana ere, balizkoa ezta? Orduan bien arteko kontinuidaderik edo jarraitasun edo jarraikeriarik -'jarraikeria' esango genuke- ez dago. Indoeuroparrez dago jarraikeria. Jarraikeria hori da idealizazio bat, ezta? nor ari da idealizatzen? hemen idealizatzen ari dena orain, eta orduan bi mundu horiek beti ageri dira, ezta? edozein hizkuntzatan ikus daiteke. Yo estoy idealizando, pero quién es ese 'yo' que idealiza, no? y que ve a ese otro 'yo'. Bi, bi gara. Euskeraz argiagoak dira, ez? besterik gabe, zorionez. Izan ere, lagun batek euskera ikasten ari zenean, esaten zidan: "esto es muy raro, no? esto del 'dut' y el 'nuen', porque claro, 'nuen' sí, pero en 'dut' dónde está el yo?" Eta hori da kontua, bera ere konturatu egin zen, ezta? hizkuntza asko hitzegiten

ditu berak, eta harrituta zegoen. Orduan, alde horretatik ez dago 'ser' hori, ezta? 'Izan': zer da 'izan' hori? partizipio bat. Berez da balizko mundu horri dagokiona edo izandako, edo hilik dagoen mundu horri dagokiona, ez? Hain zuzen ere, Lafon hizkuntzalariak ere, bere ustez iraganaldiko 'zen' hori, hau da: 'nintzan-hintzan eta zan' hori letorke 'izan' horretatik; 'izan' eta 'zan' gauza bera litzateke. Zer dugu 'zan' edo 'zen' horren aldean orain? 'da'. Eta 'da' hori zer da? 'da' hori da indoeuroparrez agertzen den 'es' hori? ba ez, ezta ere. Zeren eta euskeraz gauza bat argi baldin badago da aditz paradigma erabat simetrikoa dela, ez dago ia irregulartasunik alde horretatik. Irregulartasun bakarra dago 'da' hori azaltzen denean, ezta? hau da, "ni naiz, hi haiz, eta hura da". 'da' horretan ez dago izan aditzaren errorik, hala nola "ni nago, hi hago, hura dago"; edo "ni natza, hi hatza, hura datza"; edo "ni nator, hi hator, hura dator"; edo "ni nabil, hi habil, hura dabil". Ordea, "ni naiz, hi haiz, hura da": 'da' hori bakarrean ari da, ez? ez da "ni naiz, hi haiz, hura daiz". Ez, ez dago. Ez dago, eta hori da berezia. Eta bueno, liburuan analisisa oso luzea da horri buruz, badakizuenetz, eta 'da' horretan nik ikusten dudana besterik gabe da 'du-t' horretan ageri den 't' hori, antzinean 'du-da' zena, ba gauza bera, ez? zer markatzen ari dira bi horiek? hizketan ari naizen momentu hau: 'du-da', ez? 'da'. Eta bueno, hortik datoz antzina 'orain' esateko erabiltzen zen -hitz konposatueta behintzat- hitz bat, eta da: 'dan'. Hori De Rijk izeneko hizkuntzalari holandar batek ikusi zuen eta bere artikulu batean ageri da, ez?: 'dan'. 'Dan' hori zer da? 'orain', 'hemen'; gauza bera esan nahi du: orain, hemen, dan, ezta? hizketan ari naizen momentu hau, ez? Aintzinako mito hindu horretan argi ikusten da, ez? Hizketan ari den 'ni' hori -hau da euskeraz 'da' hori- zer da? hitzegindakoa, hitzegiten ari dena, hitzegiteko momentua, eta hitzegiteko lekua, bera, gauza bera markatzen du 'da' horrek ezta? Eta hori harrapaezina da, ze hori da aldioro esan beharreko zerbait, ez? 'da' esaten dut. Orduan, mitologian edo kontakizunetan: Mari zer da? ezin da ere esan zer den, baizik eta momentuan

momentuan gauza bat edo beste izango 'da'. Aiba, harria 'da' esango dut, edo ezdakitzer 'da', baina ez da gauza bat identifikatu daitekeena, baizik eta 'dena'. 'Dena' edo 'den' horrek zer esan nahi du? ba bueno, 'da' horri dagokiona, ezta? hitzegitean sortzen dudana mundua. Eta hori ez da zena, 'zena' da beste zerbait: hildakoa edo: amona zena, alkate zena, laguna zena, andregaia zena... enfin, zena.

PC -'Dario' edo 'jario' hori adibidez Taoismoarekin lotuta dago, ezta?

-Bai, bai, hori da kontua, hor ikusten da baita ere. Jario edo jariatze hori oso interesgarria da eta aspaldi artikulua batean horri buruz idatzi nuen ere, eta nola 'heriotze' hitza bera ere azken finean da 'herio', eta 'herio' hori da 'jario' bera, ez? Euskeraz badaude heriotza izendatzeko bi modu: bata da 'herio' eta bestea da 'heriotze'. Horretaz Mitxelenak ere hitzegiten du: 'herio' izango litzateke aktiboa, "muerte activa", ez? eta agertzen da pertsonaia bezala kontakizunetan "Herio dator eta..." Balbe ere agertzen da, ez? 'Balbe', bizkaieraz agertzen den 'herio' bera, ez? Herioa figura bat bezela agertzen da. Beste gauza bat da 'heriotzea', hau da, momentuoro hiltzen ari gara, urtzen edo heriotzen, jario hori da, ez? orduan jario hori nola ebaki dezakezu? ebakitzen baduzu, hor ez dago jariorik. Kontzeptualizatzen baduzu edo idealizatzen baduzu hor ez dago jariorik, hor geldirik dago, ur geldia da, ez? eta ur geldiari gertatzen zaiona da usteldu egiten dela. Orduan, ura ustel ez dadin, ba urari utzi egin behar zaio jario dezala, edo 'dariola', ez? Jarioa, joanetortze hori, eta bueno, hain zuzen ere 'denbora' izendatzeko hitzak euskeraz oso interesgarriak dira, ezta? 'denbora' latineko neutro plural bat da, ez? 'tempora'. Eliz-hizkuntzatik hartutakoa, ez? Guk erabiltzen ditugu, adibidez 'urte'. Eta 'urte' zer da? ba 'urtze', urarekin lotuta dagoen hitza, ez? ez da 'denbora' hori baizik eta joate hori.

PC -Urtean behin gertatzen den elurraren joate hori.

-Bai, elurrarena eta urarena, eta hain zuzen ere badaude batzuk oraindik "ur goiena ur barrena" eta... urari buruzko kantak urte berrian ezta? edo urte zaharrean, urarekin lotuta, ez? 'Hile': 'hile' ilargiarekin lotutako gauza bat da, eta ilargia hain zuzen ere da jario horren errepresentazio sinboliko bat, ezta? eta urekin lotuta dagoena. Bai, hori da. 'Hiltze', ba ilargiarekin lotuta ere, 'hil' hori, ez? Hiltze hori zer da? ilargiaren mugimendua bera, ezta? Joanetortzeak dira, eta hori munduko mitologia guztietan ageri den zerbait da, ez? ilargia lotuta dago urekin eta heriotzarekin azaldu dudana zentzu horretan, ez? ba bueno, hori gure aditzan ageri da eta gure kontakizun guztietan ere bai, nere ustez.

PC -Identidad Cultural Vasca.

-Gai honi buruz asko mintzatzen da eta beti gaztelaniaz, hain zuzen ere. Esate baterako, ez dago euskeraz hori esateko modurik, ez? ez dago hori esaterik, ez dago. Ez dago esaterik "los vascos existen", ezta ere "los vascos no existen", ezta? ez dago, ez dago horrelakorik. Hasteko, 'vasco' hitz hori bera ere indoeuroparra da. Tobarrek, Antonio Tobarrek aspaldi ikusi zuen aintzinako diru txanpon batean inskripzio bat 'vascunios' edo, ezta? 'vascunes'; horretatik dirudi gero datorrela 'vascones' hitza bera, eta 'vascones' hitzean ikusten zuen berak hitz-erro indoeuropear bat, eta da 'vas'. Eta 'vas' horrek esan nahi du 'goiengan bizi direnak', ezta? hau da, mendi magaletan-eta bizi direnak. Orduan hori kontzeptu geografiko bat da, ez? Aldiz, euskaldunok ordea ez dugu kontzeptu geografikorik erabili baizik eta hizkuntz kontzeptu bat, kontzeptu dei bageniezaioke horri, ezta? eta da 'euskalduna'. Euskalduna besterik gabe euskeraz hitzegiten duena da, besterik ez da. Hori da euskalduna, ez? izan ditzake halako edo bestelako ideiak edo sinismenak edo dena delakoak, baina euskeraz hitzegiten duenez euskalduna da, eta kitto. 'Vasco' beste gauza bat da, ez? Eta País Vasco, eta Los Vascos, eta Gobierno

Vasco, eta guzti hori, ez? Horretarako asmatu zuen hain zuzen ere Sabino Aranak 'eusko' barbarismo hori, ez? 'euskal' horrek ez duelako zerikusirik 'vasco' hitzarekin berez, eta berak 'eusko' hori sortzen du, eta horregatik esaten da Eusko Jaurilaritza, 'vasco' esateko.

PC -'Eusko' horrek zer definitzen du?

-Eusko horrek definitu nahi du 'lo vasco'

PC -'Euskal' nondik dator?

-Euskara hitzak konposaketetan hartzen duen forma bat.

PC -Eta 'euskara' hitza? Euskara zer da, tresna?

-Bai, euskara. Erdara eta euskara. Hitzegiteko modu bat.

PC -Orduan euskaldun hitzak ez du definitzen komunidadetate bat?

-Ez, ez, bakarrik euskeraz hitzegiten dela. 'Euskaldun' da euskeraz hitzegiten duena. Euskeraz *egiten* duena berez, ez? Beti esan izan da 'euskaraz egin', ez da esan 'euskeraz hitz egin', hori beranduago. Euskeraz egin, euskeraz jardun, edo euskeraz ari izan, ari. Euskaraz ari naiz, euskaraz ari gara, ez? euskaraz. Da egite bat, aritze bat, hori da euskalduna, ezta? hau da, euskaldun izatea zer da? ez izate 'ser' bat, baizik eta egite bat, aritze bat, orain. Orain euskaraz ari gara, ba euskaldunak gara, euskaldunak *gara*. 'Gara' hori ez da... baizik eta gaude, euskaraz hitzegiten ari gara, orain. Ba bueno, hori da euskalduna. Eta 'vasco' da beste zerbait: idea bat, tal... oso interesgarria estatuentzat, espainiarentzat ere oso interesgarria, ez?

PB -Gaur egun badago beste hitz bat asko erabiltzen dena nere ustez: 'Abertzalea'.

-'Abertzalea' Sabinok asmatutako beste hitz bat: 'aberri', baina 'aberri' zer da? ba berak beste zenbait hitzetatik atera edo erauzi zuen berak erro bat zela uste zuena, eta da 'aba', aita, ezta? orduan, 'patria' 'pater' horretatik datorren bezala, bueno, pues 'aberri', gauza bera, 'patria' itzultzeko asmatutako hitza da, ezta? 'aberri'. Eta 'abertzalea' zein da? ba bueno, ideia horren zalea.

PC -'Pater' eta 'patria' horri buruz agian gehiago hitzegin dugu 'mater-ari' buruz baino. 'Matriarkalismoa', edo akaso 'matriarkalismo' beste 'ismo' bat da, eta beste tranpa bat beraz.

-Bai, alde batetik tranpa bat, esan nahi da, matriarkalismo izendatutako horren funtsean edo oinarrian ongi ulertzen baldin bada, ba bueno, ongi dago, ezta? Orain, hor badago, eta hori oso indoeuroparra da, ezta? espekulazio bat, ez? 'Espekulazioa' da 'ispilu' hitzetik datorrena, ez? 'Espekulazioa' da isla bat edo kopia bat besterik gabe, imitazio bat. Eta imitazio hori zein da? Ba bueno, feminismoan ikusten dena. "Gizonezkoek hau egiten dutela? Hori egin behar dugu, baina emakumezkoek". Pentsatu beharrean: "bueno, emakumeek agian alda dezakegu gure emetasunetik", ez dago kopiatu beharrik. Bueno, matriarkalismoarekin zer gertatzen da? espekulazioa dela alde horretatik, hau da, Dios bat dagoen bezala, Diosa jartzen diogu ondoan. Baina ez dira parekoak. Ez dira elkarrekin besterik gabe jar daitezkeenak. Orain, ikuspuntu patrialetik, mugagabea dena mugatu nahi baldin badut, zer egingo dut? Rey bat dagoen bezala Reina bat jarriko dut, ezta? Ez dut utziko emetasuna mugagabea izaten, baizik eta mugatu egin nahi dut, ezta? Botere patriala dagoen bezala, botere matriala, ez? eta horregatik hitzegin izan da matriarkadoari buruz, eta funtsean ideia indoeuropear bat da, ezta? Hemen, hain zuzen ere, ez da jainkosarik, ezta? inork ez dio Mari edo Anbotoko Damari edo dana dalako horri 'jainkosa' hitza eman, ezta? zeren eta 'jainkosa' hitz horrek ez du zentzu

handirik. Orduan zein izango litzateke beste alde hori, alde matrial hori? ba bueno, hain zuzen ere espekulazio horretatik kanpo dagoen zerbait, ez? benetan mugagabea. Horregatik, lehen esan bezela, Mari ageri da Anbotoko Dama bezela edo dena delako bezela, baina ahari bezela, zezen bezela, behi gorri bezela, harri bezela, arroka, zuhaitz, ur, su, enfin, denetatik bezela, ez? aldaketa hori, ez? aldaketa eta 'identidad'-eza horren figurazio edo konfigurazio bat, hori da, ez? Mari. Zerbait izatez gerotan hori da, ez?

PC -"Un escorpión en su madriguera o una espada metida en su vaina", ezta?

-Bai, hori, "un escorpión en su madriguera o una espada metida en su vaina", ez? hain zuzen ere horretatik liburuaren titulua, ez? "Un escorpión en su madriguera" erabiltzen da aintzinako mito hindu horretan esateko: "Harrapa ez dezakegun hitzegiten ari garen momentu hau, hau, ni, hemen, hori, harrapa ez dezakegun hori edozein lekutan dago, hau da, ez konkretu bat baizik eta edozein", ezta? Zergatik "un escorpión en su madriguera"? Ezin delako harrapatu, hala nola ezin den harrapatu, edo ezin den ikusi 'un escorpión en su madriguera', ez? Ezin duzu ikusi: 'un escorpión en su madriguera', 'escorpión' hori zein da? hori, momentu hori: ezin duzu harrapatu, ezin da ikusi. Horri aintzinako Indian deitzen zioten Atman, ez? Atman, edo Brahman. Hemen 'Adur' ere deitu izan zaio, halako gauzak. Harrapa ezina da. 'Identidade' eza.

PC -Arnasketa.

-Arnasketa. Arnasketa hain zuzen ere, ura bezala, moztetarik gabeko prozesu bat da, ez? ezin dut moztu: moztu egiten badut hil egiten naiz. Hori da kontua. Arnasaren kontuan ongi ikusten da, eta gainera arnasa da gauza guztiekin lotu egiten nauen zerbait, ze gauza guztiak ari dira arnasketa horretan, ezta? hemen dauden landare hauek ere arnasa hartzen ari dira, eta beren

arnasa eta nere arnasa eta gu guztion arnasa nahasten ari da, eta gero nere arnasa... normalean ez naiz nere arnasaren jabe, ezta? bi zentzutan: ni ez naiz horren jabe, ez dut jabetzarik arnasa horretan, eta gainera ez naiz konturatzen arnasa hartzen ari naizenik, ez? Izan ere, jartzen baldin banaiz konturatze horretan ideia guztiak kanpo utzi behar ditut ze, idea bat egiten badut, alde batetik arnasa hartzen jarraitzeko, beste alde batetik horri buruzko idea bat izango dut. Hori da. 'Atman' da alemanezko 'atmen', ez? arnasa hartzea, hain zuzen. Eta Brahman ere hori da, ez? amaigabeko prozesu hori, idearik gabeko prozesua.

PC -Baina landareek egunez fotosintesia egiten dute, eta gauez bakarrik egiten dute arnasketa, ezta?

-Ez, egunez ere arnasketa alderantzizkoa, hau da, egunez egiten dutena da oxigenoa bota guk har dezagun. Erritmoa da, ez? landareena erritmo hutsa da. Landareak oso interesgarriak dira horretarako, ez? izan ere, erabateko sortze-bizitze-hiltze prozesu horretan erabatekoan daude, ez? urteroko aldi horiek, ez? urtaroak edo esaten dena, ez? Ideiarik gabe bizi egiten dira, ez? Sustriak ere hor dituzte lurrean sartuta, sustriak lurrean baina zerurantz, ez? Ilunpean dituzte sustriak baina eguzkiruntz jotzen dute. Bueno, hor gero sinbolo, metafora asko daude.

PC -Orduan jada ematen du -kontzeptu indoeuroparretan- poesiaz ari garela, eta poesia ez omen da zientzia bezain tresna baliagarria mundua ulertzeko, ez? Niri behintzat kostatzen zait horretaz sinistaraztea jendeari, edo behintzat zientzian ikasi duen jendeari, ez? "Hitzegidazu poesiaz" esaten dizute mespretxuz-edo, ironiaz-edo, esanaz bezala: "jolastu zaitez, bai, baina badakizu hori ez dela benetan inportantea".

-Hain zuzen ere poesia oso tresna erabilgarria da alde askotatik. Alde batetik, poesia zaharrean behintzat, hor badagoelako erritmo bat, oso inportantea, ez? eta erritmo

horretan gu galdu egiten gara, identitatea galdu egiten dugu, ez? erritmo horretan. Gauza guztiek dute erritmo bat, ez? Eta erritmo horri ere gu gagozkio, horren arabera gaude, ezta? eta poesian hori argi ikusten da. Beste alde batetik, metafora eta sinboloen erabilera, ez? poesia saiatzen da beste mundu hori iradokitzen, edo iradokiarazten. Zientzia zer da? ba, poesia fosilizatua, nik esango nuke. Zientzian erabiltzen dira metafora batzuk, eta metafora horiek fosilizazioak dira, ezta? 'Raíz cuadrada': Emanuel Lizcano soziologoak horretaz hitzegiten du, ez? eta 'raíz cuadrada' horretan zer da 'raíz'? metafora fosilizatu bat, ezta? Guk ikasi dugu eta ez dugu sekula pentsatu, ezta? "ostia! raíz! raíz cuadrada gainera!". Zergatik? fosilizazio horiek, ez? Metafora guerrero asko daude gaztelaniaz. Asko. Eta poesia baliatzen da guzti horretaz beste mundu batzuk zabaltzeko, edo hori seinatzeko edo. Kantak, ipuinak, dantzak, halako gauzak, erritmoz beteta dauden gauzak. Eta zientzia da guzti horren alde fosilizatua, nik esango nuke. Zer da 'agujero negro'? 'agujero negro', metafora bat. Galaxia, planeta, gauza horiek metaforak dira. Beldurra dago horren azpian, ezta?

PC -Erotozko beldurra agian?

-Hiltzeari diogun beldurra, ez? Hiltzeko beldurrez bizi gara, orduan beldur horrek pentsatzen gaitu fikziozko euskarriak bezala, eta euskarri horiek zein dire? ba ideak, ez? Gezurrezko ziurtasun bat da, baina bueno, ez dakit, ezkontzen bazara badirudi badagoela ziurtasun bat. Hor zaude, ez? zure bikotearen parte.

PC -Baina badaude fikzio fikzioak eta fikzio instituzionalizatuak-edo.

-Klaro, hori da, fikzio instituzionalizatuak. Eta badaude ere fikzioa direla ahaztu egin diren fikzioak. Konturatzen bazarete, bankuek horrekin funtzionatzen dute, ezta? 'Kreditua' ematen dizutenean hori fedeari dagokion

metafora bat da, ez? 'kredito emate hori', ez? zu kredito hori eman diezazuen gai zara, ematen dizute kreditua. Horrek esan nahi du zure identitatea horretan sinistu egiten dutela, 'identidad' hortan. Baina, klaro, 'identidad' hori zerk ematen dizu? zure nominak ematen dizu 'identidad' hori. Bankuak eskatzen dizu: "usted tiene nómina en nuestro banco? ah pues sí, ah, entonces le damos crédito", hau da, "creemos en usted porque usted es idéntico a sí mismo puesto que tiene una nómina aquí que cada mes le mete nosecuanto". Eta hori da zin egitea. "Cuánto crédito tiene? pues tiene un millón de crédito, puesto que su identidad consiste en doscientasmil al mes. Que tiene usted una identidad de un millón al mes? pues su crédito aumenta, puesto que su identidad es mayor. Cuanto mayor es la identidad, más es el crédito que te damos. Porque eres idéntico ciertamente, no? Si tienes doscientos millones, joe, tienes un crédito de la hostia. Creen en ti totalmenete. Si no pagas qué pasa? Entonces eres un moroso. Eres un tío que ya no tiene crédito ni va a tenerlo en ningún lado, porque ya se encargan ellos de decir que éste no es fiable. No tienes crédito; no creáis en él."

PC -Emanda datorren mundu eta gizarte moderno horretaz zalantza egiten baduzu, zalantzan jarritz gero, beldurra ematen du heldulekurik ez izatea eta ero bihurtzea, edo horrelako gauzak. Beldur gaur egungoa da hori ezta? depresioa...

-Beldur oinarritzkoa da. Badago XVI. mendeko esaera zahar bat, ezta?, "Refranes y sentencias" liburuan ageri dena, bizkaiera zaharrean, eta da: "Beldur bat abereetan, asko gizonetan". Gainera horrela esaten du: ez du esaten 'gizonengan', baizik eta 'gizonetan'. "Beldur bat abereetan, asko gizonetan", beldur asko ditugu, ez bat bakarra, ez? Animaliak izan dezake bat, baina guk asko ditugu, zergatik? kokatzen ditugulako guztiak iraganean edo etorkizun delako horretan, eta denbora finko horretan, eta hortik dator gure antsiedadea. Orduan, uste izatea

heldulekurik gabe geratuko gerala, gaur egungo gizarte honetatik ez kanpo, ze kanpo ez gara bizi, gizartea gudan dago, ez? Piska bat kritikatu edo zalantzan jarritz gero ero bihurtuko dela: beldur hori da manejatzen dutena politikoei eta gobernadoreei, eta dirudunek zentzu horretan: bankuek.

PC -Dogmarik eta federik gabe bizitzea zaila ematen duela. Zaila dela, edo da: bide zaila.

-Nik alderantziz esango nuke; esango nuke: bizitzeko modu bakarra da dogmarik eta sinismenik gabe bizitzea, ez? zeren beste guztia da 'existir', beste guztia da 'identidad' hori heldulekutzat hartzea, ez? Orain, bizi, bizi... Bizi, neretzat ez dago beste modurik, ezta? Bizi, bizitzea... dogmarik gabe bizitzen da, bizitzak ez du dogmarik; guk ditugu dogma horiek, ezta? Heldutasuna erabat armonizatuta bizitzarekin, ezta? baina begiradatu bat ematen badiegu inguruan daukagun guztiari segituan ikusten da bizitzak ez duela dogmarik, ez? baditu erritmo batzuk, badago armonia bat, badago, elkarrekiko lotura bat, horri deitzen zaio 'cosmos' ezta? eta gu ere horren zati bat gara. Baina gure begiak egiten duena da: horretatik bereizi egiten gaitu, ezta? eta orduan bereizketa hori nola adierazten da? kontrolatu nahian. Ulertzen ez dudana kontrolatu egin nahi dut. Eta bizitza bihurtzen dut 'biologia'. Eta gure bizitza bihurtzen dugu 'biografia', eta ideiarik gabeko aldi edo 'denbora' horri deitzen diogu 'historia'. Eta gerta daitekeen hori, ideiarik gabeko gerta daitekeena ez dakidana zer egin bihurtzen dugu 'futuro'.

PB -Nik keja bat jarriko diet diskurtso hauei, eta betikoa da: entzuten duzu dena, eta esaten duzu: 'hostia, oso interesantea', baina gero ateratzen zara hemendik, edo irakurlea aterako da irakurketa gelatik eta esango du: '¿y qué cojones hago yo ahora, no?'. Ze alde batetik zuk liburua irakurtzen duzu, eta ikusten duzu kutsu anti-politiko edo dena delako hori. Ezetza erabili eta esaten duzu: hau ez, hau ez, hau ez, hau ez. Eta badakit azken

finean hori dela bidea, suposatzen dut, 'hau ez' esatea, baina hori da bide bakarra?

-Bueno, 'hau ez' horretatik dator 'hau bai' bat.

PC -'Hau bai' hori da, hain zuzen ere horregatik daramagu bi ordu hemen asuntuari bueltaka, eta ez goaz inora, baina hemen ari gara, besterik gabe, solasean.

-Bai, bai, hori da, solasean

PB -Eta jolasean, klaro.

PC -Eta irakurleak dauka asumitzea bere buruarekin solasean, edo bere lagunarekin.

-Klaro, hori da kontua, hori da kontua. Nik liburua idatzi dut edo liburua horrela atera zait, baina nik ezin dut, ez dut nahi kontrolatu zer egin dezakeen irakurtzen duenak horrekin, ezta? Hau da, denok dugunez 'jende' alderdi hori, denok dugu mugagabetasun hori buruan, ba bueno, agian liburuak edo hemen esaten ari garen guzti honek agian zerbaiten ukitu egingo dio; orduan, berak jakingo du horrekin zer egin, ez? Ez dakit, ni ez naiz apaiz bat, edo ez naiz politiko bat, ez? Politikoak dira esaten dutenak: "eta orain egin behar dena da hau", ez? Nik besterik gabe seinatu egiten dut: hau horrela, eta hau horrela, eta bueno, eta hizketan ari gara horregatik, ez?

PC -Orduan ez dugu sekta bat egingo?

-Ez dugu sektarik egingo. Sektak eginak daude, ezta? 'Secus' hitzatik dator, ez?: 'ebaki', eta hitzak esan nahi du ebakia dagoela, 'sexus' bezala. 'Sexus' da 'ebakia': gizonetzkoak eta emakumezkoak.

PC -Eta zergatik esaten dugu euskeraz 'sexu'? ez al dago euskeraz holako hitzik?

-Ez dugu horrelakorik behar izan sekulan ez. Ze 'sexu' hori zer da: abstrakzio bat, ez? Eta guri beti interesatu izan zaigu, uste dut, egiten ari garena. Orduan, klaro, egiten ari garena badu berez egiten ari denak. Gero kontua noiz dator? kontatu egin nahi duzunean, ez? zer egin duzun eta zer ez duzun egin, baina hori da beste motako egitura bat, eta da 'hitz egitea', hau da, egite hori 'hitz bihurtu'. Baina klaro, hori ja ez da gauza bera.

PC -Orduan euskaldunak ez du sexuari buruz hitzegin inoiz?

PB -Badaukazu titularra!

-"Jo badeza dardoaz" esaten du Etxeparek, 'dardo' deitzen dio pitilinari, ez?

PC -Hiztegi erotikoak badaude, ezta?

-Oso ona, portzierto, Etxezarretarena.

PC -Eta kolekzio erotikoak ere ateratzen ari dira euskeraz. Behingoz hitzegiten ari dira euskaldunak sexuari buruz!?

-Horri buruz hitzegiten denean zer gertatzen da? Egiten dugula bageneki bezala, ez? eta hor dago koxka, nere ustez. Ez dakigu zer den hori, ez? Hain zuzen ere nere ustez kontua dago, edo grazia, edo, ez dakit nola esan, piperra eta ozpina hor dago, ez? egite horretan; ez kontatze horretan baizik eta egitean. Kontatu beharrik ez dago. Zer da kontatu behar duzuna?